

# URTEKO TXOSTENA

## 2018

## AURKIBIDEA

|                                                                                |           |
|--------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>ZUZENDARI NAGUSIAREN ESKUTITZA</b>                                          | <b>4</b>  |
| <b>1 SARRERA</b>                                                               | <b>6</b>  |
| 1.1 Mondragon Assemblyri buruz                                                 | 6         |
| 1.2 Organigrama eta negozio egitura                                            | 7         |
| 1.3 Ingurunea                                                                  | 8         |
| 1.4 Interes taldeen premiak eta itxaropenak                                    | 9         |
| 1.5 Arriskuaren kudeaketa                                                      | 12        |
| 1.6 Erronka estrategikoak                                                      | 14        |
| <b>2 KUDEAKETA SOZIALKI ARDURATSUA</b>                                         | <b>16</b> |
| 2.1 Gure balioak                                                               | 16        |
| 2.2 Erantzukizun Sozialeko jardura                                             | 17        |
| 2.2.1 Helburuen betetze maila                                                  | 17        |
| 2.2.2 Jokabide kodearen betetzearen ebaluazioa                                 | 18        |
| 2.2.3 Interes taldeekiko komunikazioak                                         | 20        |
| 2.2.4 2019rako helburuak                                                       | 21        |
| 2.3 Pertsonekin lotura duten adierazleen portaera                              | 22        |
| 2.4 Berdintasun plana eta bere garapena                                        | 22        |
| 2.5 Gizartearentzako ekarpena                                                  | 25        |
| 2.5.1 Laguntzak banatzeko irizpideak                                           | 25        |
| 2.5.2 Gizartearentzako zuzeneko ekarpenak                                      | 26        |
| 2.5.3 Gizartearentzako zeharkako ekarpenak                                     | 27        |
| <b>3 BERRIKUNTZA ETA TEKNOLOGIA</b>                                            | <b>28</b> |
| 3.1 4.0 teknologiak, monitorizazioa, datuen analisisa eta zerbitzu aurreratuak | 28        |
| 3.2 Robotika                                                                   | 28        |
| 3.3 Eguzki negozioa                                                            | 29        |
| 3.4 Bateriak - Biltegiatzea                                                    | 29        |
| <b>4 MONDRAGON ASSEMBLYREN MAGNITUDE NAGUSIAK</b>                              | <b>30</b> |
| 4.1 Salmenten bilakaera                                                        | 30        |

|          |                                            |           |
|----------|--------------------------------------------|-----------|
| 4.2      | Salmentak sektoreka                        | 31        |
| 4.3      | Plantillaren bilakaera                     | 31        |
| <b>5</b> | <b>BEZEROAREKIKO HARREMANA</b>             | <b>32</b> |
| 5.1      | Bezeroarentzako eskaintza                  | 32        |
| 5.2      | Produktu eta zerbitzu sozialki arduratsuak | 33        |
| <b>6</b> | <b>PERTSONEN KUDEAKETA</b>                 | <b>34</b> |
| 6.1      | Plantillaren profila                       | 34        |
| 6.2      | Pertsonetikiko elkarriketa mekanismoak     | 35        |
| 6.3      | Langileen garapena eta prestakuntza        | 37        |
| 6.4      | Harrera eta integrazioarako programa       | 40        |
| 6.5      | Etengabeko prestakuntzako programak        | 40        |
| 6.6      | Konpetentzien araberako kudeaketa          | 40        |
| 6.7      | Onura sozialak                             | 41        |
| 6.8      | Laneko segurtasuna eta osasuna             | 43        |
| <b>7</b> | <b>JOKABIDE ETIKOA</b>                     | <b>48</b> |
| 7.1      | Betetze sistema                            | 48        |
| 7.1.1    | Helburuak betetzea                         | 49        |
| 7.1.2    | Protokoloen edo prozeduren egokitzapena    | 49        |
| 7.1.3    | Komunikazio ekintzak                       | 51        |
| 7.1.4    | Aitortzak                                  | 51        |
| 7.1.5    | 2019rako helburuak                         | 51        |
| 7.2      | Giza eskubideekiko konpromisoa             | 51        |
| <b>8</b> | <b>INGURUMENAREKIKO HARREMANA</b>          | <b>53</b> |
| 8.1      | 2018ko helburuak betetzea                  | 54        |
| 8.2      | Ingurumeneko jardura                       | 54        |
| 8.3      | Komunikazioa                               | 55        |
| 8.4      | 2019rako helburuak                         | 55        |
| <b>9</b> | <b>EROSKETA ARDURATSUAK</b>                | <b>56</b> |

## ZUZENDARI NAGUSIAREN ESKUTITZA

MONDRAGON ASSEMBLY S. Coop.ek urte ontzat jo behar du 2018a, salmentetan eta emaitzetan gora egin baitu, 2017arekin alderatuta.

Enpresa kooperatiboaren ikuspuntutik eta kontuan izanda **“lanpostu errentagarriak eta denboran iraunkorrak sortzea”** izan dela gure helburu nagusia, 2018a positiboa izan da. Talde mailan 55 lanpostu berri sortu ditugu eta Aretxabaletako plantan 10. Arrazoi horregatik, esan dezakegu gure IPDK fondoan bitartez urtero egiten dugun ekarpenaz gain (aurten 1,2M euro inguru), aurten lana ere sortu dugula geure ingurunean eta horrekin ere egiten diogula ekarpena gure inguruneari, aberastasuna sortzen lagunduta.

Ilido beretik, eskualdearekin dugun konpromisoak eraman gaitu tokiko hainbat elkarteri laguntzera (UDA, Loramendi), finantzaketarako eta irauteko diruzko laguntzak emanez.

Enpresaren ikuspuntutik ere 2018a ona izan da. Salmenten mailan 87 milioi euro lortu ditugu salmenta bateratuetan, eta emaitzetan ere urtea positiboa izan da. Bi kopuruak errekorrak izan dira gure enpresarentzat, eta horrek hobetzeko jarraitzeko erronka zaila jartzen digu datozen urteetarako.

Ezin dugu bistatik galdu gure helburua modu kontrolatuan haztea dela, eta hazkunde hori gure pertsonen mende dagoela, pertsonak gure aktiboa dira-eta. Errentagarritasuna da gure helburua, hazkundearen gainera, eta horregatik ezin dugu bistatik galdu gure proiektuak kontrolatu beharra daukagula eta proiektu bakoitzaren bukaeran bezeroa asebeteta geratzea lortu behar dugula beti, proiektu berri bat gurekin egin nahi izateko.

2018ko urtean Alemaniako plantan handitzeko lanak bukatu ditugu, planta ahalik eta handiena eginda. Frantzia, eraikinaren eta ekoizpen plantaren birmoldaketa sakona egin dugu, filialari itxura modernoagoa emanda, fabrikatzen dugun produktu teknologikoarekin bat etortzeko.

Gaur egun, Alemanian, Frantzia, Mexikon, Txinan, Brasilen eta Indian lantegiak dituen enpresa talde bat gara, eta 430 pertsona baino gehiago ditugu gure plantetan zuzenean lan egiten.

Gure enpresa da Euskadin hainbat arauben arabera homologatutako Kudeaketa Sistema Bateratua duten lehen enpresetako bat, gauzak ondo egitearekin dugun konpromisoa hori

lortzera bideratu dugu eta. Zehazki arau hauek homologatuta dago bere Kudeaketa Sistema Bateratua: **ISO 9001: 2015** (Kalitatea), **ISO 14001:2015** (Ingurumenekoa), **ISO 45001:2018** (Laneko Segurtasun eta Osasunekoa), **SR 10: 2015** (Erantzukizun Sozialekoa) eta **UNE 19601: 2017** (“Compliance”-koa, Negozioak egiteko moduaren etikotasuna). Guretzat, aitortza horiek gauzak ondo egiten jarraitzea animatzen gaituzte, egingo denaren aurrean (ZER) egiteko moduari (NOLA) lehentasuna emanda beti. Modu bakarra dago gauzak egiteko, ONDO egitea, eta printzipio horrekin emaitzak egongo dira, seguru.

2018an, jende gaztea sartzen jarraitu dugu gure lantegietan, eta agintzen diegu profesionalki garatzen lagunduko diegula. Helburu horrekin prestakuntza plan zehatz bat dugu ezarrita pertsona bakoitzarekin. Plan horretan pertsona bakoitzarentzako helburu bat dugu definituta, bai eta zein izango den pertsona horietako bakoitzaren tutore teknikoa prestakuntza denbora horretan eta zein izango den pertsona horiei beren garapenaren “feedback”-a emango diena. Egoera horretan, talentua atzitzeko eta mantentzeko helburu garbia dugu; izan ere, “Marka enplegu emaille” indartsua eta hautagai posibleentzako erakargarria garatu nahi dugu, jada bertan lanean gaudenontzat harro egoteko moduko zerbait izan dadin. Mondragon Korporazioarekin eta taldeko beste kooperatiba batzuekin batera ari gara lantzen proiektu hau, eta 2019an ikusiko ditugu proiektuaren emaitzak.

Proiektuak eta informazioa gure filialekin partekatzearen alde ditugun balioak mantentzen ditugu. Informazioaren ikuspuntutik lantegi guztiekin harremanetan gaude etengabe (urtean hiru aldiz gutxienez), eta bisita bakoitzean proiektuen egoera eta datozen hilabeteetarako aurreikuspenak azaltzen dira. Taldean, halaber, lantegien arteko elkartasun printzipioa aplikatzen da.

Pasa den urtean eguzki paneletan onartu zen inbertsioa jada martxan dago, eta horri esker energia kontsumoaren zati bat sortzeko gai gara, ingurumenarekin eta energia garbiaren sorkuntzarekin dugun konpromisoa erakutsita.

2018ra begiratuta, badugu alderdi bat 2019an lantzen jarraitu beharko duguna: Taldearen gobernantza eta hazkuntzaren kudeaketa. Bi alderdi horiek garrantzitsuak izaten jarraitzen dute 2019an, eta lantzen jarraitu beharko ditugu gure proiektuari egonkortasuna eta segurtasuna emateko. Taldeko bi plantaren edo gehiagoren artean partekatutako proiektu globalen kudeaketa dela-eta behartuta gaude lantegien arteko komunikazioa eta ezagutza transbasea intentsuki lantzeraz.

2019 erronka zorrotzeko urtea izango da gure enpresarentzat: salmentak, proiektuak, bezero berriak, langile berriak. Beraz, beharrezkoa izango da gutako bakoitzak daukagun hoberena ematea, enpresako kide izateagatik harro sentitzen jarraitu dezagun.


# 1 Sarrera

## 1.1 Mondragon Assemblyri buruz

MONDRAGON ASSEMBLY S. COOP.ek 1997an ekin zion bere jarduerari, FAGOR Taldeko kidea da eta MONDRAGON Korporazioaren Mondragon Industri Automatizazioko Dibisioaren barruan dago (MIA).

Mihiztaketa prozesuen automatizaziorako ekipo sorta zabalen diseinuan, fabrikazioan eta instalazioan espezializatutako enpresa bat da, eta teknologia berrieneko soluzio efizienteak eta kalitate bikainekoak eskaintzen ditu.

Gure bezeroen etengabeko arrakastari esker, sektore ugartan egiten dugu lan:



MONDRAGON ASSEMBLY, bezeroengandik hurbilago egoteko, 20 urte baino gehiago ari da nazioarteratze prozesu bat garatzen, eta gaur egun kokapen hauek ditu MONDRAGON ASSEMBLY TALDEko kide diren enpresen bitartez:



Merkatura eta bezeroarengan hurbiltzeko etengabeko ahalegin horren ondorioz, Aretxabaletako Lantegian bi Negozio linea garatu dira:

- **Eguzki negozioa:** eguzki moduluen fabrikaziorako behar diren prozesu jakin batzuk automatizatzeko makinak zein lantegi osoan giltza eskurako entregak egiten ditu, hainbat eratako teknologiak bateratuz.
- **Makina Berezien negozioa:** prozesuen automatizaziorako soluzioak ematen ditu hainbat sektoretarako: etxetresna elektrikoak, medikuntza sektorea, osagai elektrikoak, automobilgintza, etab.


Mondragon Assembly kooperatiba bat da, enpresa jarduera arduratsua eta iraunkorra garatzen du, eta jokabide kode batekin eta legea betetzearekin bat datorren errentagarritasuna eta balio erantsia bilatzen ditu etengabe bere bezeroentzat eta beste interes talde batzuentzat.

Beste datu interesgarri batzuk

-  425 enplegatu baino gehiago munduan
-  85 milioi euro baino gehiago salmentetan
-  6 lantegi produktibo munduan
-  40 urteko esperientzia

## 1.2 Organigrama eta negozio egitura

Hau da Mondragon Assemblyren antolaketa egitura:




## 1.3 Ingurunea

Plan estrategikoetan inpaktua duten eta aurreikusitako emaitzak lortzen gaitasunean eragina duten barruko eta kanpoko gaiak identifikatu dira Mondragon Assemblyn. Urtero berrikuspen bat egiten da eta ekintza planak ezartzen dira, zeinak kudeaketa planen bitartez bideratzen diren. Hau da 2018ko analisia:

| GAIAK IDENTIFIKATZEA                                                                                                                                                                                                        | NOLA ERAGITEN DUEN                                                                                                                                                                                                                  | SEGUIMIENTO Y ACCIONES                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>LEGE ALDERDIAK (kanpoko gaia)</b>                                                                                                                                                                                        | Tokiko legeetan, estatukoeran, Europakoeran eta mundukoetan ere egiten diren aldaketek dute eragina, izan ere, MAK mundu osoan egiten du lan.                                                                                       | Se hace seguimiento de los cambios legislativos según el procedimiento "requisitos legales y normativos". En los países donde están ubicadas las plantas ellos se responsabilizan de la vigilancia de cambios legislativos y fiscales.                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| <b>ALDERDI FISKAAL (kanpoko gaia)</b>                                                                                                                                                                                       | Tokiko legeetan, estatukoeran, Europakoeran eta mundukoetan ere egiten diren aldaketek dute eragina, izan ere, MAK mundu osoan egiten du lan.                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>ALDERDI TEKNIKOAK (kanpoko gaia)</b>                                                                                                                                                                                     | Produktuari aplikatzen zaizkion munduko araudien aldaketek dute eragina. Teknologia berriek ekarritako aldaketek eragiten dute.                                                                                                     | Se hace seguimiento de las normativas CE a través de Koniker y Osarten. En el caso de otros mercados son las plantas exteriores las que realizan el seguimiento de los cambios normativos.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <b>MERKATKO GAIK SEKTOREEN ARABERA (kanpoko gaia)</b>                                                                                                                                                                       | Produktuei buruzko legeetan, muga zergen gainekoetan, ingurumen alderdien gainekoetan, eta segurtasun alderdien gainekoetan gertatzen diren aldaketek eragiten dute.                                                                | Se dispone de un sistema de vigilancia tecnológica según se recoge en el procedimiento de requisitos legales y normativos.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <b>EREMU TEKNOLOGIKOA (kanpoko gaia)</b>                                                                                                                                                                                    | Gure jardura eremuak diren sektoreetako teknologiak duen bilakaerak eragiten du: Eguzki energia, etxetresna elektrikoak osagarriak, automobilen osagarriak, automobilen tresnak, tresneria elektrikoa, medikuntza, sektore berriak. |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>LEHIARAKO TESTUINGURUA (kanpoko gaia)</b>                                                                                                                                                                                | Gure jardura eremuak diren sektore eta herrialde guztietan lehiakideak agertzeak eragiten du.                                                                                                                                       | Vigilancia tecnológica (innovación).                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| <b>TESTUINGURU EKONOMIKOA (kanpoko gaia)</b>                                                                                                                                                                                | Testuinguru ekonomikoak bezeroen inbertsio mailan eta inbertsio motan du eragina, bai eta inbertsioaketa aukeretan, soldata baldintzetan, eta erositako eta saldutako ondasun eta zerbitzuen prezioetan ere, besteak beste.         | Seguimiento desde la alta dirección: informes, etc                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <b>ALDERDI KULTURALAK (kanpoko gaia)</b>                                                                                                                                                                                    | Merkatuari heltzeko orduan eragiten du, bai eta harreman komertzialetan, jokabide kodearen eta politiken betetzean ere.                                                                                                             | Formación continua de comerciales y resto de plantilla. Formación en multiculturalidad.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| <b>ERAKUNDEAREN BALIOAK ETA KULTURA (barruko gaia)</b>                                                                                                                                                                      | Gestio sistema guztien ezaipenean eragiten du. Funtsezkoa da pertsona prestatuak eta irekiak edukitzea complianceren kultura, STTarena, ingurumenarena, Erantzukizun Sozialarena, eta kalitatearena ezartzeko.                      | Se tienen definidos la misión, visión, valores, existe una política del Sistema Integrado de Gestión (incluye "compliance", RS, medioambiente, STT, calidad), código de conducta, políticas.<br>Se hace difusión a través de las charlas informativas.<br>Cada dos años se realiza la encuesta de satisfacción de las personas y se establecen planes de mejora.<br>"Team bulding" y "coaching" en las plantas de México y China.<br>Invitación de personas de plantas exteriores a las Asambleas generales |
| <b>ALDERDI SOZIALAK (barruko gaia)</b>                                                                                                                                                                                      | Gizartearen balioetan gertatzen diren aldaketek izugarri eragiten dute. Belaunaldi berrietan balio berri horiek sartzen dira.                                                                                                       | Herramientas de escucha por parte de recursos humanos, entrevistas personales con todas y cada una de las personas de la organización, extrayendo conclusiones y estableciendo planes de acción.                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <b>KOMUNIKAZIOA (barruko gaia)</b>                                                                                                                                                                                          | Komunikatzeko moduak pertsonen edozein ekimen berriren aurrean duten jarrera irekian du eragina, baita edozein eratako gestio sistemak ezartzeko ekimenen aurrean ere.                                                              | Es un aspecto que se cuida según se indica en el procedimiento "Comunicación, transparencia y participación". Mensualmente se celebran charlas informativas y Asambleas Generales anualmente.                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| <b>LAN KARGA (barruko gaia)</b>                                                                                                                                                                                             | Edozein jardura berriren ezaipenean du eragina.                                                                                                                                                                                     | Se interrelaciona con los responsables de las áreas para adecuar los recursos a la actividad (Reuniones de planificación semanales y planificación de recursos a largo plazo)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| Kanpoko testuingurua ezagutzea errazago izan daiteke legeen, teknologien, lehiakideen, kulturaren eta gizartearen alorretan nazioartean, Espainian, eskualdea edo tokian bertan sortzen diren gaiak aintzat hartzen badira. |                                                                                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| Barruko testuinguruaren ezagutza errazago izan daiteke erakundearen balioak, ezagutzak eta jardura aintzat hartzen badira.                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |

Ingurunearen zaintzako alderdien barruan, Mondragon Assemblyk arreta berezia jartzen du lege eta arau baldintzetan, eta erakundea eta prozesuak alderdi hauetan egin beharreko aldaketetara egokitze mekanismoak ditu:



Ingurunearen eta barruko zein kanpoko alderdien analisiaren emaitzak funtsezko ekarpenak izan ziren garai honetan garatzen ari den 2017-2021 aldirako Plan Estrategikoa lantzeko.

2018an, azpimarragarriena izan da maiatzean LOPDa indarrean sartzeak ekarri dituen ekintzen plana gauzatzea.

2018an, informazioaren segurtasuna hobetzeko ere erabili dira baliabide asko.

## 1.4 Interes taldeen premiak eta itxaropenak

Gestio sistemak lantzeak kontzienteago egin gintuen interes taldeak identifikatzeko duen garrantziaz. 2017an bultzada oso garrantzitsua eman zitzaion alderdi horri, erantzukizun soziala kudeatzeko sistemaren betekizunak bete ziren-eta.

Kudeaketa sistema zabaldu zen, P26 prozedurarekin ("Interes taldeen identifikazioa. Gaien identifikazioa eta ebaluazioa"), zeinak metodologia bat ezartzen baitzuen interes taldeak eta haien garrantzitsuak diren gaiak identifikatzeko, bai eta gai horiei lehentasuna emateko eta enpresaren baliabideen eta estrategiaren arabera konpromisoak bere gain hartzeko ere.

Egin dugun diagnostikoan, gure ustez interes talde askori entzuten zaie etengabe eta enpresaren ohiko prozedura eta sistemen bitartez erantzuten zaie beren premiei eta itxaropenei (berdez). Laranja kolorez adierazita daude Jokabide, erantzukizun sozial eta "compliance" Batzordearen bitartez kudeatzen diren interesak eta itxaropenak dituzten interes taldeak.

Hurrengo taulan agertzen dira interes taldeak, identifikatutako gaiak, haiekiko komunikaziorako kanalak eta 2018an gauzatu diren ekintzak edota 2019an hasi nahi direnak.

| INTERES TALDEAK                           | GAIAK (premiak, espektatibak...)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | UNEKO KUDEAKETA                                                                                        | ES.KO GAIAK KOMUNKATZEKO BIDEAK                                                                                                                                                                                                                                                                         | EKINTZAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|-------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| BEZEROAK                                  | <p>Zehaztapenak betetzea: kalitatea, prezioa, epea</p> <p>Diseinua / Soluzio Teknikoa</p> <p>Laguntza / Euskarria</p> <p>Epeak betetzea</p> <p>Lehiakortasuna/Inbertitutakotik bueltan datorrena</p> <p>Informazioa, komunikazio eraginkorra</p> <p>Bilakaera Teknologikoa</p> <p>Konfidentzialtasuna, Konfiantza</p> <p>Balio erantsiko zerbitzuak</p> <p>Betetze penala eta politikak: eroskeriarik ez, interes gatazkariak ez, etab.</p>                                                                | Hauen bitartez ematen da erantzuna: P24, P11, P04, P25                                                 | <p>Bezeroaren gogobetetzea neurtzeko egin diren elkarrizketak aprobetxatzen dira eta halentzat garrantzitsuak diren galen gainean duten iritzia jasotzen da. Haiekin edukitzen diren harremanetatik sortzen diren bileretan ere bai.</p> <p>Komunikazioa eta informazioa web gunean.</p>                | Bezero berriak lortu dira, eta eguzki energiaren merkatuan ikusgarritasun handiagoa lortu da, azoketan, hitzaldietan eta web orrian presente egonda.                                                                                                                                                                                                                                 |
| ADMINISTRATZIOA/UDALA                     | <p>Legeak betetzea</p> <p>Lizentziak</p> <p>Ingurunea hobetzea: Ingurumena, irudia</p> <p>Lanpostuak sortzen udalean bertan</p> <p>Zergak ordaintzeko obligazioak betetzea</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             | P02 bidez kudeatzea lege betekizunetarako, P17 ingurunearen hobekuntzarako eta P25 "compliance"-rako.  | <p>Urteko memoria bidaltzea.</p> <p>Elkarrizketa hiru urtean behin inkestarekin. Azkena 2018an</p> <p>Kexak eta iradokizunak jaso</p>                                                                                                                                                                   | 2018an lehen elkarrizketa formalak egin zen alkatearekin; 8 pabilioia eta klimatizazio instalazioa legezatu ziren eta 2018an eraiki zen solairuareko bat inauguratzeko ekitaldi bat egin zen. Alkatea, Korporazioko lehendakaria eta Aenorreko lehendakaria gonbidatu ziren ekitaldira.                                                                                              |
| ADMINISTRATZIOA / AGINTARITZA ESKUMENDUNA | <p>Legeak betetzea</p> <p>Zergak ordaintzeko obligazioak betetzea</p> <p>Betetze penala</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | P02, P25                                                                                               | Web bidez                                                                                                                                                                                                                                                                                               | Urteko memoria argitaratzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| "M.A."-Aretxabaletako LANGILEAK           | <p>Garapen Profesionala</p> <p>Balioa eta enplegua sortzea</p> <p>Lan Ingurune Segurua</p> <p>Elkarlanean lan ingurunea</p> <p>Ezagutza</p> <p>Informazioa, komunikazio eraginkorra</p> <p>Parte hartzea</p> <p>Elkartasuna</p> <p>Legeak eta akordioak betetzea: Berdintasuna, diskriminaziorik eza, famili kontziliazioa, etab.</p> <p>Lan legeak betetzea, ordainsarien gaineko akordioak betetzea</p> <p>Compliance penalarik buruzko prestakuntza, kode etikoa eta politikak buruzko prestakuntza</p> | Kudeaketa prozedura hauen bitartez: P09, P11, P13, P14, P15, P16, P18, P19, P25, P26                   | <p>Pertsonen gogobetetzeari buruz hiru urtean behin egin ohi den inkesta jasotzen da pertzepzioa. Beste ekimen batzuk sortu daitezke ekintza plan zehatzen arabera. Hitzaldi informatiboak.</p> <p>Urteko "Feed back"-a. Kontseilu Soziala.</p> <p>2018an arrisku psikosozialen ebaluazioa egin da.</p> | <p>2018an, famili kontziliaziarako beste neurri bat ezarri zen, sarrerako ordutegi malgua 09:30ak arte luzatuta.</p> <p>2018an, dagoen berdintasun plana berrikusi da eta bi erabaki garrantzitsu hartu dira: Mondragon Assemblyk parekidetasuna bilatuko du, eta diskriminazio positiboa aplikatuko da langileen hautaketan.</p> <p>Barneko komunikazio politika bat garatu da.</p> |
| MONDRAGON                                 | <p>Printzipioak, balioak eta gestio eredua</p> <p>onartzea</p> <p>Balioa eta enplegua sortzea</p> <p>Elkartasuna</p> <p>Errentagarritasuna</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             | Komunikazioak etengabeak dira hainbat fororen bitartez. Foroen edukia eta maiztasuna definituta daude. | Komunikazioak etengabeak dira hainbat fororen bitartez. Foroen edukia eta maiztasuna definituta daude.                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| MIA TALDEA (MONDRAGON)                    | <p>Printzipioak, balioak eta gestio eredua</p> <p>onartzea</p> <p>Balioa eta enplegua sortzea</p> <p>Elkartasuna</p> <p>Benchmarkinga, praktikarik hoberenak</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                        | Komunikazioak etengabeak dira hainbat fororen bitartez. Foroen edukia eta maiztasuna definituta daude.                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| JABEAK (BAZKIDE LANGILEAK)                | <p>Balioa eta enplegua sortzea</p> <p>Errentagarritasun Finantzarioa</p> <p>Produktuen eta zerbitzuen kalitatea</p> <p>Hazkundera (sektoreak, Bolumena)</p> <p>Elkartasuna</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             | Kudeaketa prozedura hauen bitartez: P11, P23                                                           | Kooperatibaren urteko batzarrean eta hileko hitzaldi informatiboetan jasotzen da pertzepzioa                                                                                                                                                                                                            | 2018an ordainsari aldagarririk aplikatu da emaitza onak izateko denok egindako ahalegina saritzeko.                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| FAGOR                                     | <p>Elkartasuna</p> <p>Ordainsarien politika eta arau maila hartutako beste erabaki batzuk</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              | Komunikazioak etengabeak dira hainbat fororen bitartez. Foroen edukia eta maiztasuna definituta daude. | Komunikazioak etengabeak dira hainbat fororen bitartez. Foroen edukia eta maiztasuna definituta daude.                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| BAZKIDEAK ETA ALIATUAK                    | <p>Ikerketa eta garapeneko proiektu komunak</p> <p>Produktuak trukatzea</p> <p>Merkatuko irudia</p> <p>Bezeroarentzako balio erantsia</p> <p>Lankidetzat etikia eta betetze penala, kode etikoa eta politika betetzea</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                  | P24, P25 Prozedurak. Premiaren arabera kudeaketa                                                       | Proiektuetan batera jardutea eskatzen duten komunikazioak eta aliantza garatzen den bitartean.                                                                                                                                                                                                          | Kapitulu honetan, azken bezeroarentzako eskaintza handitu ahal izateko Meyer Burgerrekin egindako aliantza bat da garrantzitsua.                                                                                                                                                                                                                                                     |
| BARRUKO/KANPOKO KONTRATAK                 | <p>Lan Ingurune Segurua</p> <p>Malgutasuna lan kargan</p> <p>Lankidetzat etikia eta betetze penala, kode etikoa eta politika betetzea</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | Gestioa eta sistematika hauen bitartez: P21 eta P22                                                    | Gutxienez elkarrizketa bat egiten da urtean, eskari erosketen zenbatekoaren %70 diren hornitzaileei egin beharreko ebaluazioa dela eta. Elkarrizketa horretan jardueraren gaineko feedbacka egiten da eta kezak jasotzen dira.                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| HORNITZAILAK                              | <p>Balio erantsiko eta kalitateko produktuak hornitzea</p> <p>Marjina produktuetan</p> <p>Informazio fidagarria jasotzea aldi-aldi</p> <p>Kode etikoa eta politikak betetzea</p> <p>Erantzukizun Sozial Korporatiboa</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                   | Gestioa eta sistematika hauen bitartez: P21 eta P22                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| GIZARTE ZIBILA                            | <p>Ingurumena eta ingurua zaintzea</p> <p>MAren irudia ingurunean</p> <p>Betetze penala</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | Gestioa hauen bitartez: P11, P17, P20, P25.                                                            | Web kanala eta tokiko agintaritzari egindako elkarrizketak. Prentsan presentzia handiago edukitzen salatu da.                                                                                                                                                                                           | 2018an eguzki panelak instalatu dira Mondragon Assemblyren estalkian. Enpresa bat kontratatu da hondakinak behar bezala bereizten direla ziurtatzeko. Eskualdeko nerabeen droga mendekotasunaren aurka borrokatzeko U.D.A. kirol elkartea garatzen ari den proiektuan laguntzea erabaki zen eta hala egiten ari da. 2019an ekimen horiek garatzen jarraituko da.                     |
| AZKEN ERABILITZAILA                       | <p>Makina fidagarria, segurua, eta ingurumena errespetatzen duena</p> <p>Zerbitzu eraginkorra</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          | Gestioa P24aren bitartez                                                                               | Komunikazio informala proiektuko pertsonen, eta komunikazio formal bezeroaren etxean makina prest jartzeko lanen jarraipena egiteko bileretan                                                                                                                                                           | 4.0 Industria proiektua egiten ari da konektibitatea lortzeko eta azken bezeroari ematen zaion zerbitzua hobetzeko.                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| LEHIAKIDEAK                               | <p>Betetze penala, jabeago eskubideen errespetua</p> <p>Lehia askearen errespetua (prezioak ez dira adosten, etab.)</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | Zaintza teknologikoa                                                                                   | Emailak argitaratzen dira                                                                                                                                                                                                                                                                               | Lehiakideen jabetza intelektual errespetatzen da. Lehiatzean beti portaera etikoa izaten da.                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| ZENTRO TEKNOLOGIKOAK                      | <p>Zaintza teknologikoa</p> <p>Elkarrekin egiteko diren berrikuntza proiektuak</p> <p>Betetze penala eta jokabide kodea eta politikak errespetatzea (diru laguntzak)</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | P25                                                                                                    | Komunikazioak etengabeak dira hainbat fororen bitartez. Foroen edukia eta maiztasuna definituta daude. Berrikuntza zuzendaria egoten da bertan.                                                                                                                                                         | Ikusi berrikuntza proiektuak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| UNIBERTSITATEAK                           | <p>Langile trebatuak lortzea</p> <p>Talentua erakartzea</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | Akordioa definituta                                                                                    | Pertsonen Zuzendaritzak aldizka bilerak dauka                                                                                                                                                                                                                                                           | Automatizazioko masterra: Masterraren diseinuan parte hartu dugu, eta konpromisoa hartu dugu gutxienez bi ikasle hartzeko praktikak egiteko, gero agian kontratatatzeko Ate irekien jardunaldietan eta hitzaldietan parte hartzea Unibertsitatean                                                                                                                                    |
| KANPOKO LANTEGIAK (FILIALAK)              | <p>Baterako proiektuak</p> <p>Sinergiak erosketetan, salmentetan, proiektuetan</p> <p>Kultura komuna</p> <p>Compliance penala, kode etikoa eta politikak errespetatzea</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | P25. Jarraipenerako dinamika definituta.                                                               | Komunikazioak etengabeak dira hainbat fororen bitartez. Foroen edukia eta maiztasuna definituta daude (Zuzendaritza Nagusia eta Pertsonen eta Finantzen Zuzendaritza)                                                                                                                                   | Erosketetako eta finantzaketako foroak, proiektu globalen garapena.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| ENPRESA PARTAIDETUAK/GOBERNUKO BAZKIDEAK  | <p>Errentagarritasuna</p> <p>Betetze penalaren eta kode etikorekin eta politikarekin betetzearen ikuskerak</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             | P25, parte hartzea zuzendaritza kontseiluetan                                                          | Komunikazioa laneko ohiko dinamikaren aldezakoa bileren bitartez. Zuzendaritza Nagusia arduratzen da horretaz.                                                                                                                                                                                          | 2019an Kiro enpresa partaidetako kapitala handitu da.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| FILIAL KOMERTZIALAK                       | <p>Compliance penala, kode etikoa eta politikak errespetatzea</p> <p>Produktu eta zerbitzu fidagarriak eta lehiakorrik edukitzea</p> <p>Jardunbide komertzial etikoak, lehia askea errespetatzea</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | P25, P24                                                                                               | Komunikazioa negozio zuzendariarekin egin ohi diren aldezakoa bileren bitartez                                                                                                                                                                                                                          | Aurreikusita dago jokabide kodearekin eta politikarekin bat egitea Izenpetza Indian, Brasilen eta Alemanian                                                                                                                                                                                                                                                                          |


## 1.5 Arriskuaren kudeaketa

Mondragón Assemblyn eremu guztietako arriskuen eta aukeren kudeaketa sistematikoa egiten da, izan ere, gure ustez arriskuen kudeaketa ezartzeak honetan laguntzen du:

- Kudeaketa proaktiboa bultzatzen, erreaktiboaren ordeztu, eta erakundearen maila guztietan arriskua identifikatzen eta tratatzen.
- Lege eta arau baldintza aplikagarriak eta arauak betetzen
- Enpresa kudeaketa hobetzen
- Interes taldeen konfiantza hobetzen
- Erabakiak hartzeko eta planifikatzeko oinarri fidagarri bat ezartzen
- Eraginkortasun eta efizientzia operazionala hobetzen
- Laneko segurtasun eta osasuna areagotzen
- Prebentzioa eta gertakarien kudeaketa hobetzen

Arriskuaren kudeaketa prozesu guztietan, testuingurua eta arriskuak identifikatzen dira, gero horien guztien analisia eta ebaluazioa egiteko (kasuan-kasuan ezarritako metodologiaren arabera).

Ebaluazioaren emaitzetan oinarrituta, tratamendua ezartzen da (onartu, ezabatu, murriztu, etab), eta tratamenduak ekintza plan bat eman dezake ondorioz.



Ondoren, 2018ko Gestio Plana landu zenean antzeman ziren aukerak aprobetxatzeko eta arriskuak ekiditeko urte horretan egin ziren ekintzak adieraziko ditugu: 2019an aurreikusten diren ekintzak ere ikusi daitezke.

| Eremua                  | Gaia                                                                              | R/O | Azalpena                                                                                                                  | Ekintzak                                                                                                                                                                                                                                                                        | Epea          | Egoera                                                                                |
|-------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|-----|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|---------------------------------------------------------------------------------------|
| Ingurumena              | Eguratseko igorpenak                                                              | O   | Identifikatutako igorpen bakarra rentingeko autoen flotagatik da.                                                         | Aldatu ibilgailuen flota igorpen txikiagoko beste batzuekin                                                                                                                                                                                                                     | ots-19        | Eginda                                                                                |
| Ingurumena              | Barruko pertsonak                                                                 | R   | Ingurumenaren kudeaketarako lantegian dagoen sistema ez ezagutzea                                                         | Prestakuntza ematea pilulen bitartez hileko hitzaldi informatiboetan, pertsona guztiei bidaltzea posta elektronikoko bidez eta funtzionamenduaren jarraipena egitea                                                                                                             | Etengab<br>ea | Orainean prestakuntza saio bat eman da hondakinen edukiontzien funtzionamenduari      |
| Ingurumena              | Energiaren kontsumoa                                                              | O   | Energiaren kontsumoa murriztea teiatuan eguzki panelak jarritz                                                            | Panelak instalatzea                                                                                                                                                                                                                                                             | abe-18        | Eginda                                                                                |
| Ingurumena              | Energiaren kontsumoa                                                              | O   | Auditoretza energetikoa egitea eta aztertzea ea kudeaketa adimendunaren bitartez kontsumoa murrizteko aukerarik dagoen    | Energiaren kudeaketarako instalazio bat egiteko aukerak ebaluatzeko proiektua egitea<br>Auditoretza energetikoa egitea<br>Argiztapena aldatzea bulegoetan, kontsumo txikiagoko ledak jarritz                                                                                    | abe-19        |                                                                                       |
| Segurtasuna eta osasuna | 4. mailako arriskuak: objektuek harapatzea edo objektu artean harapatuta geratzea | R   | Harripaketak izateko arriskuak murriztea                                                                                  | Abian jartzeko protokoloaren ezarpena ziurtatzea<br>Aginte lerroari prestakuntza ematea<br>Aldizka prestakuntza ematea arrisku handieneko lanbideei<br>Arrisku handieneko lanbideentzako (muntaketako arduradunak) LAPari buruzko prestakuntza –oinarritako ikastaroa- bukatzea | mar-19        | Aldizkako ikuskapenak abian jartzeko protokoloa ziurtatzeko, prestakuntza bidean dago |
| Segurtasuna eta osasuna | Jardueren koordinazioa gure langileak kanpoko bezeroengana lanera                 | R   | Gure langileen arriskuak garabidean dauden herrialdeetan arriskuak komunikatzeko zailtasunengatik                         | Bezeroarekin harremanetan jartzeko gure langilea harengana iritsi aurretik, bezeroaren instalazioen egoera ezagutzeko<br>Bezeroengana doazen eta fabrikatik igoartzen ez diren instalazioen arriskuen                                                                           | uzt-19        | Bidean                                                                                |
| Segurtasuna eta osasuna | Azpikontzatekin jarduerak koordinatzea                                            | R   | azpikontzatekin langileen arriskuak<br>Lantegian lan egiten duten pertsonen kontrola eta haien akreditazioa               | Sarreraren kontrolarekin konektatu daitekeen software berri bat instalatzea                                                                                                                                                                                                     | uzt-19        | Eginda                                                                                |
| Segurtasuna eta osasuna | Arrisku ergonomikoak                                                              | R   | Programatzaileek tailerrean egiten dute lan batzuetan                                                                     | zuzentzaileak, behar badira, Datuak Bistaratzeiko Pantailaekin egiten diren lanetan                                                                                                                                                                                             | abe-19        | 2019ko irailerako aurreikusia                                                         |
| Segurtasuna eta osasuna | Arriskua makinaren manipulazioan                                                  | R   | B pabiloiaren 3 sektoreak ez du garabirik                                                                                 | Garabia instalatzea arriskuak ekiditeko eta ergonomia hobetze makinak mugitzean                                                                                                                                                                                                 | abe-19        | 2019ko abuzturako aurreikusia                                                         |
| Proiektuen Gestioa      | Talentua erakartzea                                                               | R   | Proiektuei heldu ahal izateko trebakuntzarik ez duten langileak ez edukitzea arriskua negozio bietan.                     | Talentua erakartzeko eta mantentzeko proiektua gauzatzea                                                                                                                                                                                                                        | abe-19        | Bidean                                                                                |
| Proiektuen Gestioa      | Langileak integratzea eta kide izatearen zentzia                                  | R   | Langileak ez integratzeko arriskua, hazkunde azkarra dela-eta                                                             | Bazkidearen atariaren proiektua gauzatzea komunikazioa hobetzeko                                                                                                                                                                                                                | abe-19        | Bidean                                                                                |
| Makinak                 | Arriskuen ebaluazioa                                                              | R   | CE markei buruzko araudia: Eskatzen du Europar Erkidegoan merkaturatzen diren makina guztien arriskuen ebaluazioa egitea. | Makinaren ebaluazioak berrikusteko                                                                                                                                                                                                                                              | abe-19        | Bidean                                                                                |
| Erantzukizun Soziala    | Sistemaren hobekuntza                                                             | O   | UDAK nerabeen drogamendekotasunaren aurka egiteko proiektuarekiko elkarlana garatzen jarraitzea                           | Lankidetzat maila ekonomikoan Bateria kirol jarduerak<br>Logoak, kamiseten erosketa<br>Gazteentzako ate irekin jardunaldiak                                                                                                                                                     | abe-19        | Bidean                                                                                |
| Erantzukizun Soziala    | Sistemaren hobekuntza                                                             | O   | Pertsona desgaituak lanerako hartzeko formula aztertzea                                                                   | Erakundeekin harremanetan sartzeko                                                                                                                                                                                                                                              | abe-19        | Bidean                                                                                |
| Erantzukizun Soziala    | Sistemaren hobekuntza                                                             | O   | Enpresa osasungarriaren ekintzak ezartzea                                                                                 | Ohitura onen newstetterra<br>Kirol jarduerak sustatzea                                                                                                                                                                                                                          | abe-19        | Bidean                                                                                |
| "Compliance" penala     | Sistemaren ezarpena                                                               | O   | Compliance neurriak ezartzea 10 hornitzaileengan                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                 | abe-19        |                                                                                       |
| "Compliance" penala     | Sistemaren ezarpena                                                               | O   | Ezartzen bukatzea Alemanian, Frantzia, Brasilen eta Indian                                                                | Jarraipena egitea eta tokiko lege alderdien arabera beharrezkoak diren aldaketak ere bai                                                                                                                                                                                        | abe-19        |                                                                                       |

## 1.6 Erronka estrategikoak

Lau urtean behin Mondragon Assemblyk gogoeta estrategiko bat egiten du, eta oraingo aldirako bost jardute eremu identifikatu dira.



2018an urratsak eman dira planifikazio estrategikoaren jomugan jarritako erronkak lortzeko.  
2019aren hasieran hau da aurrerapen maila:

1. Presentzia globala sendotzea: 4 proiektu global bereganatu dira.
2. Gobernantza eredua:
  - a. Lantegiak autonomoak dira proiektuak gauzatzeko,
  - b. baterako proiektuak egin dira jada, hainbat lantegiren partaidetzarekin
  - c. finantzaketa autonomia da lantegi bakoitzean
  - d. kanpoko lantegiek salmenten gaineko %5eko emaitzak lortu dituzte
3. Kudeaketa komertziala / bezeroekiko harremana:
  - a. eskaintzak oinarri komun batekin egiten dira jada lantegi guztietan.
  - b. Proiektu globalen 9 eskaintza egin dira.

4. Berrikuntza:

- a. 4.0 internetean prototipo batetik eguzki lerro guztien %50 “read to connect” izatera igaro da.
- b. Lankidetzazko robotikaren prototipo bat lantzen ari da.
- c. Berrikuntza gastatutakoa salmenten %5 izan da.
- d. Bi hornitzailerekin aliantzak ditugu eta patente bat egin da 2018an.

5. Pertsonak:

- a. 2018an 3 bilera egin dira Zuzendaritza Kontseiluarekin, lantegien arteko koordinazioa hobetzeko.
- b. Proiektuak egiteko modu homogeneoa edukitzeko lanean ari gara
- c. Proiektu globalak kudeatzeko antolaketa bat definitu da

## 2 Kudeaketa sozialki arduratsua

### 2.1 Gure balioak

Pertsona bakoitzarentzat eta enpresarentzat oso motor garrantzitsua da egiten den lanari balioa aurkitzea. Horregatik, duela urte batzuk Mondragon Assemblyn gogoeta bat egin zen eta gogoeta horren ondorioz misio bat eta balio batzuk definitu ziren enpresan.

#### MISIOA

Talde dinamiko eta konprometitua gara, Mondragon Assembly Kooperatibaren Partaide Izatearen Zentzu handia duena; Automatizazioko Soluzio Industrialak garatzen ditugu, hau da, makinak saltzeaz gain, Zerbitzu bat ere eskaintzen dugu, nazioartekotzearen alde eginez hainbat sektoretan Konfiantza eragiten duena.

#### BALIOAK

Hauek dira Mondragon Assemblyren balioak:

- Proaktibitatea / Lidergoa
- Berrikuntza
- Pertsonen garapena
- Talde lana
- Bikaintasuna
- Bezeroarekiko hurbiltasuna

|                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1. Proaktibitatea / Lidergoa</b><br>Nire ahalmenean garapena lantzea da, nire eragin eremuko protagonista/erantzule bihurtuta eta balio hori kooperatibaren zerbitzura jarrita.                                                                                           |
| <b>2. Berrikuntza.</b><br>Irtenbide alternatiboen eta/edo berritzaileen Garapena eta Ezarpena sustatzea, eguneroko egoeretan zein azaleratzen ari direnetan.                                                                                                                 |
| <b>3. Pertsonen garapena.</b><br>Besteen ikasketa eta/edo garapena sustatzea, erraztea eta bultzatzea, bere beharretatik eta Kooperatibaren beharretatik abiatuta.                                                                                                           |
| <b>4. Talde lana.</b><br>Bestekin elkarlanean eta lankidetzan aritzea, konfiantzatik abiatuta eta elkarrengan bermatuta, helburu komun bat lortzeko.                                                                                                                         |
| <b>5. Bikaintasuna.</b><br>Konpromisoak hutsik gabe betetzea bilatzea etengabe, hobetzeko arloak eta aukerak identifikatzeko jarrera eta prestasun etengabearekin, bezeroari balioa eranstean dioten leku horietan ezartzeko helburuarekin, merkatuan erreferentzia izateko. |
| <b>6. Bezeroagandik hurbil.</b><br>Erakundea bezeroari buruzko harreman pertsonalizatuak eta hurbilak sortzera eta mantentzera orientatzea, eskaintzari buruzko aholkularitza eta proposamenak lantzeko aukerak sortuz.                                                      |

## 2.2 Erantzukizun Sozialeko jarduera

Kontuan hartuta "Mondragon Assembly" indarrez ari dela hazten bere etxe matrizean eta kultur ingurune desberdinak dituzten munduko hainbat lekutan lantegiak dituela eta, oro har, bere jarduera globalizatzen ari dela (bezero globalak, hornitzaile globalak, atzerriratutako pertsonak...), behartuta gaude are arreta hurbilagoa, antolatuagoa eta metodikoagoa eskaintzera, gure lantegi guztiak ikuskatzeko eta zaintzeko dugun betebeharra behar bezala betetzeko.

Erantzukizun sozialarekin lotura duten guztiari eta legeak betetzeari dagokienez, gero eta handiagoak dira bezeroen eta administrazioen eskakizunak eta gizartearenak oro har.

Eskakizun horrek, hobeak izateko eta bikaintasuna bilatzeko dugun interesarekin batera, erakunde antolatuagoa eta metodikoagoa izatera eramaten gaitu garapen iraunkorrari eta gizartearekiko erantzukizunari dagokienez, eta, bereziki, zigor arloko gaiak betetzeari dagokienez.

Horregatik, goi zuzendaritzak erantzukizun soziala eta garapen iraunkorra gestio sisteman integratzea bultzatu zuen (ISO:19001, OHSAS:18.001 eta ISO:14.001 ziurtagiriekin), eta horrek ekarri zuen 2018ko otsailean erantzukizun sozialaren kudeaketa sistemaren ziurtagiria eskuratzea, SR 10 arauaren arabera.

### 2.2.1 Helburuen betetze maila

2018rako lehen helburua zen ingurunearekiko erantzukizun sozialeko ekimen bat abian jartzea.

Jokabide, erantzukizun sozial eta "compliance"-ko batzordean, zeina 2017aren bukaeran jarri baitzen abian, hainbat alternatiba baloratu ziren, eta azkenean erabaki zen U.D.A. tokiko kirol klubak eskualdeko gazte nerabeen droga mendekotasuna ekiditeko hasi berri zuen ekimen hasiberri batean laguntzea.

Lehen hartu-emanak eduki ziren eta apirilean proiektua aurkeztu zen Kooperatibako organo guztietan (zuzendaritza kontseilua, kontseilu errektorea eta kontseilu soziala), eta aurrera egitea erabaki zen.

IPDK-ko laguntzak eman zaizkio ekimen horri eta 2019aren hasieran proiektuaren berri eman zaio kolektibo osoari. Helburu horren %60 bete dela uste da.

Bigarren helburua zen "web" orria egituratzea Erantzukizun Sozialari buruzko alderdi guztiak jakinarazteko. 2018an, ahalegina eginda, "web" orriaren bitartez jakinarazi da lehen aldiz enpresaren urteko memoria. Jokabide kodea eta politikak jakinarazteko leku bat ere badago "web" orrian. Helburu horren %60 lortu dela uste da. Izan ere, oraindik badira hainbat gauza egiteko eta hobetzeko.

Hirugarren helburu bat ere egon da. Jokabide kodea eta politikak kanpoko lantegietan zabaltzea zen helburu hori. Kontua da esposizio berezikotzat jotako posizioetan dauden pertsonak jokabide kodearekiko eta politika horiekiko atxikipena sinatzea. Helburu hori gauzatzen ari da, eta Alemaniako, Brasilgo eta Indiako lantegietan abian jartzeke dago.

## 2.2.2 Jokabide kodearen betetzearen ebaluazioa

2017an jokabide kodea idatzi zen eta kode horri erantsitako politika batzuk, eta, horien denen betetzea monitorizatzeko obligazioa dugunez, kontrol batzuk ezarri dira. Hona hemen 2018an kontrol horiek izan zituzten emaitzak:

| KONTZEPTUA                                           | BETETZEKO TRESNAK                                                                                                             | KONTROLAK                                                                                                                                                                                                                                                                                        | EMAITZAK/EBIDENTZIAK                                                                  |
|------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|
| Betetzeko eskakizuna eta konpromisoa                 | Aretxabaletako langileek onartzea, "Harrera Plana"-ren barruan                                                                | Barruko auditoriak eta urteko kanpoko auditoria                                                                                                                                                                                                                                                  | Onarpenak izenpetuta                                                                  |
| Printzipioak eta balioak                             | Onartzea, Aretxabaletan, "Harrera Plana"-ren barruan                                                                          | Barruko auditoriak eta urteko kanpoko auditoria                                                                                                                                                                                                                                                  | Barruko auditoriaren emaitzak: Aipatzeko moduko ezer negatiborik                      |
|                                                      | Jardueraren urteko ebaluazioa                                                                                                 | Pertsona bakoitzaren jardueraren ebaluazio txostenak                                                                                                                                                                                                                                             | Pertsona bakoitzaren jardueraren ebaluazio txostenen emaitzak eta hobekuntza ekintzak |
| "Jokabide Kodea" jakinaraztea eta eskuragarri egotea | Jokabide Kodea ezagutaraztea "Harrera Plana"-ren barruan                                                                      | Barruko auditoriak eta urteko kanpoko auditoria                                                                                                                                                                                                                                                  | Kanpoko auditorian, langileek zenbaterainoko ezagutza duten egiaztatzen da.           |
|                                                      | "Pilulak" hitzaldi informatiboetan                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                       |
|                                                      | Eskuragarri "M.A."-Aretxabaletako barruko "sarean" eta bere webgunean                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                       |
| Pertsonen gaineko arauak                             |                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                       |
| Legea betetzea                                       | "Pertsonen kudeaketa" prozedura                                                                                               | > Kontrol finantzarioen eta ez-finantzarioen gaineko prozedura<br>> Delituak egiteko arriskuen gainean egindako analisia, gutxienez urtero berrikusten dena.<br>> Compliance penalaren kanpoko auditoria urtero egitea (sistema egiaztatua)<br>> Barruko auditoriak eta urteko kanpoko auditoria | Ez da desadostasunik antzeman                                                         |
|                                                      | "Lege betekizunak eta beste betekizun batzuk" prozedura, non legerian gertatzen diren aldaketen zaintza sistema azaltzen den. |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                       |
|                                                      | Laneko prozesu definituak                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                       |
| Barne Araudia                                        | > Barne araudi kooperatiboa<br>> Estatutu Sozialak                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | >Emaitzak: aipatzeko moduko ezer negatiborik                                          |
| Opariak eta erregaluak                               | > Ustelkeriaren aurkako politika                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | >Emaitzak: aipatzeko moduko ezer negatiborik                                          |
| Interesen gatazka                                    | > Interes gatazkaren gaineko politika                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | >Emaitzak: Ikerketa bat eginda                                                        |
| Konfidentzialtasuna                                  | > Pribatutasuneko eta konfidentzialtasuneko politika                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | >Emaitzak: aipatzeko moduko ezer negatiborik                                          |
|                                                      | > Pasahitzen politika                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | > Antolaketa- eta Sistemen gaineko Politikak eta erabilerak izenpetzea                |
|                                                      | > Baliabide informatikoen erabilera                                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | Ez da desadostasunik antzeman                                                         |
|                                                      | > Gailu mugikorren erabilera                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                       |
|                                                      | > Langilearen irteera                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                       |
| Ustelkeria eta eroskeria                             | > Ustelkeriaren aurkako politika                                                                                              | Ez da desadostasunik antzeman                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                       |

| KONTZEPTUA                                                                    | BETETZEKO TRESNAK                                                                                                                                                                                                | KONTROLAK                                                                                                                                                                                                                                                                                      | EMAITZAK/EBIDENTZIAK                                                                                                                                                                                      |
|-------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako arauak</b>               |                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                           |
| Osasunaren zaintza                                                            | > "Osasunaren zaintza" prozedura<br>> OHSAS-18001                                                                                                                                                                | > Urteroko barne eta kanpo auditoriak                                                                                                                                                                                                                                                          | Urtero, laneko osasun zerbitzuak jardueraren urteko memoria egiten du, 2018koa eginda.                                                                                                                    |
| Laneko arriskuen prebentzioa                                                  | > "Laneko arriskuen ebaluazioa" prozedura, "enpresa jardueren koordinazioa", "produktu kimikoak", "NBEen erabilera"<br>> OHSAS-18001 ziurtagiria                                                                 | > Urteroko barne eta kanpo auditoriak                                                                                                                                                                                                                                                          | > "Garatuz" tresnaren bitartez egiten den autoebaluazioaren arabera, prebentzioaren integrazioan hobera egiten goaz<br>Prebentzio zerbitzuaren 2018ko jardueraren memoria egin da                         |
| Indarrean dagoen legeria betetzea                                             | Aholkularitzarekin bat egitea aplikatu beharreko legeria eguneratuta edukitzeko                                                                                                                                  | > Urteroko barne eta kanpo auditoriak                                                                                                                                                                                                                                                          | Legeria betetzen den berrikusi da, Legeak betetzea eskatzen duen alderdi guztietan, eta ziurtatutako kanpoko erakunde batek ikuskatu du.                                                                  |
| <b>Ingurumenarekin lotutako arauak</b>                                        |                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                           |
| Indarrean dagoen legeria betetzea                                             | > "Ingurumeneko alderdiak identifikatzea eta ebaluatzea" prozedura<br>> ISO-14001                                                                                                                                | > Urteroko barne eta kanpo auditoriak                                                                                                                                                                                                                                                          | Legeria betetzen den berrikusi da, Legeak betetzea eskatzen duen alderdi guztietan, eta ziurtatutako kanpoko erakunde batek ikuskatu du.                                                                  |
| <b>Lehentasuneko interes taldeekin lotutako arauak</b>                        |                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                           |
| Bezeroak                                                                      | "Bezeroaren gogobetetzea" prozedura eta beste batzuk                                                                                                                                                             | > Urteroko barne eta kanpo auditoriak                                                                                                                                                                                                                                                          | Inkesten emaitzak aztertu egin dira eta hobekuntza plana egin da.                                                                                                                                         |
| Hornitzaileak                                                                 | "Erosketen kudeaketa" eta "Hornitzaileen kudeaketa" prozedurak eta beste eranskin batzuk                                                                                                                         | > Urteroko barne eta kanpo auditoriak                                                                                                                                                                                                                                                          | Ez da desadostasunik antzeman kanpoko auditorian                                                                                                                                                          |
| Administrazioa                                                                | Legeriaren zaintza, "lege eta arau betekizunak" prozeduraren arabera                                                                                                                                             | > Urteroko barne eta kanpo auditoriak                                                                                                                                                                                                                                                          | >Emaitzak: Salaketa bat Udalean, hondakinen edukiontzia espalo publikoan edukitzeagatik                                                                                                                   |
| Gizartea                                                                      | "Interes taldeak identifikatzea eta gaien ebaluazioa" prozedura eta beste batzuk                                                                                                                                 | > Urteroko barne eta kanpo auditoriak                                                                                                                                                                                                                                                          | Ebidentziak urteko memorian daude jasota, baita zuzendaritzak erantzukizun sozialeko sistemari egiten dion berrikuspenaren txostenean ere                                                                 |
| Lehiakideak                                                                   | "Interes taldeak identifikatzea eta gaien ebaluazioa" prozedura eta beste batzuk                                                                                                                                 | > Urteroko barne eta kanpo auditoriak                                                                                                                                                                                                                                                          | Mondragón Assemblyk Compliance penala kudeatzeko sistema bat dauka, UNE 19601 arauaren arabera ziurtatuta; beraz, merkatuan dituen jardunbideak ikuskatzen dira, eta ez da jardunbide desleialik aurkitu. |
| Delituak prebenitzeko gestio sistema eta zigor arriskuak                      | Arrisku penalen ebaluazioa prozedura<br>Delitu penalak egiteko arriskuen analisia<br><br>> IP09 (arriskupeko pertsonengatiko eta erakundeengatiko eginbidea) + M25-02 (hirugarrenengatiko eginbidearen txostena) | > Kontrol finantzarioen eta ez-finantzarioen gaineko prozedura<br>>Delituak egiteko arriskuen gainean egindako analisia, gutxienez urtero berrikusten dena.<br>>Compliance penalaren kanpoko auditoria urtero egitea (sistema egiaztatua)<br>> Barruko auditoriak eta urteko kanpoko auditoria | >Emaitzak: aipatzeko moduko ezer negatiborik                                                                                                                                                              |
| <b>Jokabideko, erantzukizun sozialeko eta "compliance" penaleko batzordea</b> |                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                           |
| Ez betetzeak jakinarazteko barneko bideak                                     | <a href="mailto:gestionetica@mondragon-assembly.com">gestionetica@mondragon-assembly.com</a>                                                                                                                     | >Jokabideko, erantzukizun sozialeko eta compliance batzordea (CCRSC)                                                                                                                                                                                                                           | > Barruko kexa bat jasota eta kudeatuta                                                                                                                                                                   |
| Ez betetzeak jakinarazteko kanpoko bideak                                     | <a href="mailto:socialresponsibility@mondragon-assembly.com">socialresponsibility@mondragon-assembly.com</a>                                                                                                     | > CCRSC                                                                                                                                                                                                                                                                                        | > Ez da kexa bat ere ez jaso                                                                                                                                                                              |
| Diziplina erregimena                                                          | > Barne araudi kooperatiboa<br>> Estatutu Sozialak                                                                                                                                                               | >Kontseilu Errektorea                                                                                                                                                                                                                                                                          | > Diziplina prozesu bat ere ez irekita                                                                                                                                                                    |
| Betetzearen ebaluazioa eta eguneratzea                                        | > CCRSCaren funtzionamendua                                                                                                                                                                                      | > Aldizkako bilerak (aktak)                                                                                                                                                                                                                                                                    | > CCRSCaren urteko txostena                                                                                                                                                                               |

### 2.2.3 Interes taldeekiko komunikazioak

Atal honetan, 2018an interes taldeen gainean egin diren ekintzarik garrantzitsuenak adierazten dira, bai eta ekintza horien emaitzarik garrantzitsuenak ere.

- > **MEMORIA:** 2018an, “web” orrian argitaratu da lehen aldiz enpresaren memoria.
- > **BEZEROAK:** Bezero berriak lortu dira negozio unitate bietan, eta eguzki energiaren merkatuan ikusgarritasun handiagoa lortu da, azoketan, hitzaldietan eta “web” orrian presente egonda.
- > **ADMINISTRAZIOA / UDALA:** 2018an, lehen elkarrizketa formala egin zitzaion alkateari, B Pabiloia eta bere klimatizazio instalazioa legeztatu ziren, eta jada badauden instalazioak handitzeko 2018an eraiki den solairuartekoa inauguratzeko ekitaldi bat egin zen. Alkatea, Korporazioko lehendakaria eta Aenorreko lehendakaria gonbidatu genituen ekitaldi horretara.
- > **LANGILEAK:** 2018an, famili kontziliazioa hobetu zen, sarrerako ordutegi malgua 09:30ak arte luzatuta.
- > Dagoen **BERDINTASUN PLANA** berrikusi da eta bi erabaki garrantzitsu hartu dira: Mondragon Assemblyk parekidetasuna bilatuko du, eta diskriminazio positiboa aplikatuko da langileen hautaketan.
- > Barneko komunikazio politika bat garatu da.
- > 2018an, informazio pilulak eman dira hitzaldi informatiboetan, kudeaketa sistema guztien gainean.
- > **BAZKIDEAK ETA ALIATUAK:** Kapitulu honetan, “Meyer Burger”-ekin izenpetutako aliantza da esanguratsuen; izan ere, Meyer Burger teknologia fotovoltaiakoko liderretako bat da munduan.
- > “Kiro Grifols” enpresa partaidetuko kapitala indartu da.
- > **GIZARTE ZIBILA:** 2018an, 99 Kw-ko ahalmena duten eguzki panelak instalatu dira Mondragon Assemblyren estalkian, energia bide berriztagarrietatik lortzeko.
- > Enpresa bat kontratatu da hondakinak behar bezala bereizten direla ziurtatzeko.
- > Eskualdeko nerabeen droga mendekotasunaren aurka borrokatzeko U.D.A. kirol elkarteak garatzen ari den proiektuan laguntzea erabaki zen eta hala egiten ari da.
- > **AZKEN BEZEROA:** 4.0 Industria proiektua egiten ari da konektibitatea lortzeko eta azken bezeroari ematen zaion zerbitzua hobetzeko.
- > **BAZKIDE TEKNOLOGIKOAK:** akordio bat izenpetu da Frantziako zentro teknologiko batekin, energia fotovoltaiakoko teknologia garatzeko.

> UNIBERTSITATEAK: automatizazio masterraren diseinuan parte hartu dugu Mondragon Unibertsitatean, eta gutxienez bi ikasle hartzeko konpromisoa hartu dugu, enpresan praktikak egin ditzaten, gero kontratatuak izateko aukerarekin.

> Ate irekien jardunaldietan eta hitzaldietan parte hartu dugu Unibertsitatean.

> 2018an, 23 ikaslek egin dute lan gurekin, Unibertsitate-enpresa arteko hitzarmen baten bitartez. Beste 10 ikaslek lan ordaindua egin dute, Alecoop enpresaren bitartez.

> KANPOKO PLANTAK: erosketetako eta finantzetako foroak egin dira, eta proiektu globalak garatu dira.

> Txinan lantegi berri bat eraikitzea onartu zen.

Nabaritzen da interes taldeekin elkarrekiko erlazio handiagoa dagoela, ikuspegi integratzaileagoarekin eta negozio iraunkorraren ikuspegiarekin.

> Hitzaldien eta konferentzien bitartez gure pertsonen egiten duten ezagutzen hedapena da interes taldeekiko harreman honetan azpimarratzeko moduko beste atal bat. Ondoren, parte hartu duguneko ekitaldiak adieraziko ditugu:

| GERTAERA                                              | GAIA                                                                         | DATA          | PRESTATZAILEA          |
|-------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------|---------------|------------------------|
| Hitzaldia Mondragon Unibertsitatean                   | Erakundeek merkatuko aldaketetara moldatzeko gaitasunaren eragina            | Urtarrilak 25 | Pertsonen zuzendaria   |
| Hitzaldia Beckhoff hornitzailearekin                  | Ethernet Technology                                                          | Urriak 17     | Berrikuntza zuzendaria |
| GENERA Energiaren eta ingurumenaren nazioarteko azoka | Iraultza digitala sektore fotovoltaikoan                                     | Ekainak 15    | Berrikuntza teknikaria |
| Intersolar Azoka Sao Paulon                           | PV manufacturing: advancements & trends                                      | Abuztuak 30   | Eguzki zuzendaria      |
| Intersolar azoka Indian                               | Trends and challenges for PV production in the extremely fast growing market | Abenduak 12   | Eguzki zuzendaria      |
| Mondragon Unibertsitatea                              | Muntaketako makina automatikoa                                               | Urriak 18     | Komertziala            |
| Mondragon Unibertsitatea                              | Ate irekiak                                                                  | Apirilak 26   | Komertziala            |

## 2.2.4 2019rako helburuak

Hauek dira erantzukizun soziala garatzeko 2019rako proposatu diren helburuak:

- Programa bat egitea eta ekintzak garatzea Mondragon Assemblyn osasunaren kultura sustatzeko.
- Pertsona desgaituak hartzea.

## 2.3 Pertonekin lotura duten adierazleen portaera

Atxikita doan taulan ikusi daiteke zein den plantillaren bilakaera eta plantillaren osaera, prestakuntza emandako orduak, pertsonen gogobetetzeari buruzko inkestaren emaitzak, absentismoa, lan uzteak eta pertsonen gaineko beste alderdi batzuk erakusten dituzten adierazleen portaera.

Ikusi daitekeenez, adierazleen portaera proposatutako mugen barruan dago.

| DESKRIBAPENA                                   | KALKULUA                                                                   | GOI MUGA | BEHE MUGA | 2015  | 2016  | 2017  | 2018  |
|------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|----------|-----------|-------|-------|-------|-------|
| % prestakuntza orduak/lan egindako orduak      | Prestakuntza orduak/lan egindako orduak                                    |          | 2%        | 1,64% | 2,49% | 2,36% | 2,86% |
| Euskarazko komunikazioaren %                   | Euskara Batzordea                                                          |          | 59%       | 55%   | 65%   | 58%   | 59%   |
| Pertsonen konpromiso maila                     | Erakunde Kulturaren gaineko inkesta                                        | 6        | 3         | 4,8   |       | 4,9   | -     |
| Kultura Eraikitzailearen garapena              | Erakunde Kulturaren gaineko inkesta                                        | 6        | 3         | 4,3   |       | 4,2   | -     |
| Langile kopuruaren bilakaera M.A.Aretxabaletan | Urteko guztirako kopurua batez beste                                       |          |           | 98    | 104   | 122   | 145   |
| Enplegatu finkoen bilakaera M.A. Taldean       | Urteko guztirako kopurua batez beste                                       |          |           | 255   | 313   | 343   | 402   |
| Enpresa utzitakoak                             | (Enpresa uzten duten pertsonen kopurua/urteko batez besteko plantilla)x100 | 5        | 0         | 1     | 1,92  | 1,64  | 1,38  |
| Gai sozialetara borondatez egindako dohaintzak | (emandako €-ak/fakturaturako €-ak)                                         |          | 0,70%     |       | 0,70% | 0,83% | 1,66% |
| Absentismoa                                    | ITak/pertsona kopurua                                                      | 3        |           | 2,8   | 2,23  | 1,75  | 1,39  |

## 2.4 Berdintasun plana eta bere garapena

Mondragon Assemblyk berdintasun plan bat dauka 2016az geroztik. 2018an, plana eguneratu da berriro, eta bi erabaki garrantzitsu hartu dira:

- Parekidetasuna bilatuko da Mondragon Assemblyn.
- Diskriminazio positiboa aplikatuko da Mondragon Assemblyk egiten dituen hautaketa prozesuetan.

Atxikita doan taulan ikusi daiteke plantillaren bilakaera generoaren arabera. Gorriz agertzen dira ezarritako mugetatik behera dauden adierazleak.

| DESKRIBAPENA                                         | KALKULUA                                                                                        | BEHE MUGA | 2015 | 2016 | 2017 | 2018   |
|------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|------|------|------|--------|
| Emakumeen presentzia Aretxabaletan M.A.              | (Emakumeen kopurua batez beste urtean /Urteko langile kopurua batez beste) x100                 | 25%       | 20,4 | 21,1 | 22   | 21,80% |
| Emakumeen presentzia Aretxabaletako ZKn eta KEn M.A. | (Emakumeen kopurua batez beste urtean/ZK-ko eta KEko pertsona kopurua batez beste urtean ) x100 | 25%       | 30,7 | 30,7 | 30,7 | 30,7   |
| Proiektu Teknikari diren emakumeen %                 | Emakume teknikarien kop./ teknikari kopurua guztira                                             | 25        | 23%  | 26%  | 23%  | 24%    |
| Fabrikazio teknikari diren emakumeen %               | Fabrikazio teknikari diren emakumeen kop./ fabrikazio teknikarien kop. guztira                  |           | 0%   | 0%   | 3%   | 2%     |
| Emakume kudeatzaileen %                              | Emakume kudeatzaileen kop./ kudeatzaile kop. guztira                                            | 25        | 14%  | 22%  | 20%  | 17%    |
| Laguntzako Teknikari diren emakumeen %               | Laguntzako teknikari diren emakumeen kop./ Laguntzako teknikarien kop. guztira                  | 50        | 54%  | 60%  | 60%  | 59%    |

Lanbide teknikoetan emakumeen eskaintzarik ez egotea da aurkitzen ari den arazoetako bat. Parekidetasuna lortzeko oztopo bat izaten ari da, beraz, epe ertain-luzera begirako proiektua da. Dena dela, 2018an lorpena izan da fabrikazio arloan bi emakume sartzea.

Hautaketa prozesua monitorizatzeko asmoarekin, 2018an hurrengo taulan ikusi daitekeen jarraipena egiten hasi da:

| HAUTAKETA PROZESUAREN EMAITZAK      |     |
|-------------------------------------|-----|
| Hautatutako postuak 2018an          | 11  |
| Aurkeztutako pertsonak              | 79  |
| Aurkeztutako gizonen portzentajea   | 58% |
| Aurkeztutako emakumeen portzentajea | 42% |
| Hautatutako gizonen portzentajea    | 64% |
| Hautatutako emakumeen portzentajea  | 36% |

Berdintasun plana garatzen jarraitzeko, ekintza plan bat egin da, helburu hauetan hedatuta:

| 1.Helburua: Hautaketa eta promozioari buruzko datuak eguneratuta edukitzea.                                                                                               |                         |        |                   |                                                                                                               |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------|--------|-------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Neurria                                                                                                                                                                   | Arduraduna(k)           | Epea   | Maiztasuna        | Adierazleak                                                                                                   |
| Zuzendaritza Kontseiluari eta Kontseilu Errektoreari langile berrien eta lanpostu aldaketan berri ematea                                                                  | Pertsonen Departamentua | Bidean | Hilekoa           | Zuzendaritza Kontseiluari eta Kontseilu Errektoreari langile berrien eta lanpostu aldaketan berri emana izana |
| Aginte panela eguneratzea uneko urteko datuekin                                                                                                                           | Pertsonen Departamentua | Bidean | Urtekoa           | Aginte panela eguneratu izana                                                                                 |
| Hautaketa datuak eguneratzea eta Jokabide, Erantzukizun Sozial eta Compliance Penaleko Batzordeari (CCRSC) jakinaraztea                                                   | Pertsonen Departamentua | 2019   | Hiru hilean behin | Hautaketari buruzko datuak eguneratu izana eta CCRSCri jakinarazi izana                                       |
| Pertsonen arloko departamentuak plantillari buruzko datu orokorrak eguneratuta edukitzea, Jokabide, Erantzukizun Sozial eta Complianceko Batzordeak (CCRSC) analizatzeko. | Pertsonen Departamentua | 2019   | Hiru hilean behin | Plantillari buruzko datuak eguneratu izana eta CCRSCri jakinarazi izana                                       |

| 2.Helburua: Berdintasunarekiko sentsibilizazioa bultzatzea eta gai horren gaineko prestakuntza zabaltzea                                                                                                                                     |                                   |        |            |                                                                                                              |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------|--------|------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Neurria                                                                                                                                                                                                                                      | Arduraduna(k):                    | Epea   | Maiztasuna | Adierazleak                                                                                                  |
| CCRSC batzordeko kideak prestatzea berdintasunaren alorrean, eta prestakuntza hori sistematizatzea batzordeko kideen etengabeko prestakuntza bermatzeko.                                                                                     | Pertsonen departamentua eta CCRSC | 2020   | Urtero     | Batzordeari berdintasunaren gaineko prestakuntzaren bat eman izana.                                          |
| Zuzendaritza Kontseiluko eta Kontseilu Errektoreko kideei berdintasunaren alorreko prestakuntza ematea                                                                                                                                       | Pertsonen departamentua eta CCRSC | 2020   | Urtero     | ZKri eta Keri berdintasunaren gaineko prestakuntzaren bat eman izana.                                        |
| Berdintasunaren alorreko prestakuntza berezia sartzea datozen urteetako prestakuntza planetan                                                                                                                                                | Pertsonen Departamentua           | 2019   | -          | Bi urterako Prestakuntza planean berdintasunaren alorreko prestakuntza sartu izana pertsona guzientzat       |
| MONDRAGON ASSEMBLYn dauden kontziliazio neurriak jakinarazi eta neurri horien gaineko informazioa ematea kolektiboari. Eta neurri berriren bat baldin badago kolektiboari jakinarazteko (email bidez, hitzaldi informatiboen bitartez, etab) | Pertsonen Departamentua           | Bidean | Etengabe   | Dauden kontziliazio neurriak jakinarazi izana eta neurri horien gaineko informazioa eman izana kolektiboari. |

| 3.Helburua: lana, familia eta bizitza pertsonala erantzunkidetasunez uztartzea                                                                                                                       |                |        |            |                                                                      |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------|--------|------------|----------------------------------------------------------------------|
| Neurria                                                                                                                                                                                              | Arduraduna(k): | Epea   | Maiztasuna | Adierazleak                                                          |
| Kontziliazio premia berezien kasuak analizatzea eta aparteko tratamendua ematea. (Ebaluatu ahal izateko, Kontseilu Errektoreak onartutako salbuespenak urtero analizatzea)                           | CCRSC          | Bidean | Etengabe   | Kontziliazio premia berezien kasuak aztertu izana                    |
| Indarrean dauden kontziliazio neurriak aztertzea eta egokiak diren baloratzea, eta, beharrezkotzat jotzen bada, egokitze proposamen bat egitea Zuzendaritza Kontseiluari eta Kontseilu Errektoreari. | CCRSC          | 2020   | Urtero     | Indarreko kontziliazio neurriak eta beren egokitasuna aztertu izana. |

| 4.Helburua: Sentsibilizazio kanpainak egitea hautaketaren eta promozioaren gaien inguruan.                                                     |                                   |      |            |                                                                      |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------|------|------------|----------------------------------------------------------------------|
| Neurria                                                                                                                                        | Arduraduna(k):                    | Epea | Maiztasuna | Adierazleak                                                          |
| Ikastetxeetan, lanbide eskoletan, unibertsitateetan eta antzekoetan bilaketa proaktiboagoa egitea, emakumeak Mondragon Assemblyra erakartzeko. | Pertsonen Departamentua           | 2019 | Etengabe   | Ikastetxetara joan izana ate irekien egunetan.                       |
| Bateragarritasunerako bide berriak aztertzea, emakumeen promozioa eta hautaketa sustatzeko.                                                    | Pertsonen departamentua eta CCRSC | 2019 | Urtero     | Emakumeen hautaketa eta promozioa sustatzeko 2 bide proposatu izana. |
| Enplegu eskaintzetako hizkuntza berrikustea, berdintasunean oinarritutako komunikazioa bermatzeko.                                             | Pertsonen Departamentua           | 2019 | Etengabe   | Enplegu eskaintzak berrikusi izana.                                  |

## 2.5 Gizartearentzako ekarpena

Mondragon Assembly Euskal Herrian jaio zen, Gizartearen zerbitzuan aritzeko konpromiso handia duen enpresa talde batean, izaera kooperatiboko lan elkartua eta parte hartzailea sortzeko misio nagusiarekin, izan ere, hori da bere zuzeneko bazkideentzat eta bera partaide deneko Gizartearentzat berarentzat aberastasuna eta ongizatea sortzeko funtsezko bidea.

2018an, Mondragon Assemblyk gizartea hobetzeko hainbat kausatan lagundu du bere salmenten zenbatekoaren %1,66rekin.

### 2.5.1 Laguntzak banatzeko irizpideak

Erakundeak hainbat fondo ditu enplegua sustatzeko eta laguntzeko, nazioarteratzeko eta kooperatiba batzuen egoera ekonomikoa indartzeko.

Lankidetzarako Fondo Zentral bat dago (LFZ) eta Elkartasun Fondo Korporatibo bat (EFK) eta Kooperatiben arteko Hezkuntza eta Sustapen Fondo bat (KHSF). Hiru fondo horiek eta kooperatiben arteko Emaizten Birmoldaketa dira Mondragon Assemblyk kooperatiben arteko elkartasunerako dituen mekanismo ezaugarrienetakoak.

Fondo horiekin ikuspegi bateratua bultzatu daiteke, baita erronka batzuk ere, hala nola enplegua sortzeko jarduera berrien garapena, nazioarteratzea, kooperatiba batzuen egoera ekonomikoa indartzea, edo hezkuntza eta teknologiaren alorretan jarduera garrantzitsuak, ondoko lerroetan ikusi daitekeen moduan:

LFZ- Lankidetzarako Fondo Zentrala: LFZren baliabide gehienak inbertsio gisa instrumentalizatu ziren, gehienbat mailegu gisa, baina kapital ekarpenen modalitatean ere bai. Inbertsio horiek batez ere finantzak indartzera eta kooperatibak garatzera eta sendotzera bideratu ziren.

EFK – Elkartasun Fondo Korporatiboa: Elkartasun Fondo Korporatiboaren eremuan, posible da baliabide horiek kooperatiba batzuen egoera ekonomiko indartzeko erabiltzea.


KHSF-Kooperatiben arteko Hezkuntza eta Sustapen Fondoa: HHSFri dagokionez, baliabideak IPDKtik datoz.

IPDK-Heziketa eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste xede batzuetarako derrigorrezko kontribuzioa- kooperatiben legezko betekizun berezia da, eta behartzen du lortutako emaitzen ehuneko bat banatzera, funtsean I+G, prestakuntza eta kultur alorretako helburuetarako erabiltzeko. Zehazki, fondo hori zuzkitzeko kooperatiba bakoitzaren soberakin erabilgarrien %10 erabiltzen da (aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko eta derrigorrezko zergak ordaintzeko erabilitako diru kopuruak kendu ondoren).

Mondragon Taldeko kooperatibetan, estatutuetan bertan jasotzen dira soberakinak banatzeko irizpideak, soberakinak daudenean.

Laguntza sozialak esleitzeko irizpideek eta mekanismoek berezitasun batzuk dituzte:

- Bere izaera juridikoagatik eta bere bokazio kooperatiboagatik, Mondragon Assemblyk kooperatiben mundua sustatzera bideratzen du bere ekarpen solidarioen zati handi bat.
- Atal berezi bat gordetzen du obra sozialetarako, tokikoen arretarako.



Kooperatiba galera egoeran egonez gero, bazkide bakoitzaren kapitalaren murrizketa egin daiteke (Estornua).

### 2.5.2 Gizartearentzako zuzeneko ekarpenak

IPDK-ko laguntzak Fagor Taldea gidatzen dituen gizarte ekintzako proiektuen bitartez kudeatzen dira gehienbat.

2018an honela banatu ziren laguntzak:

| BANAKETAKO GUZTIRAKOA                |     | 678.359 |
|--------------------------------------|-----|---------|
| Heziketa                             | 25% | 169.590 |
| Fagor, eskualdea                     | 25% | 169.590 |
| Fagor, euskara                       | 20% | 135.672 |
| Fagor, elkarren arteko lankidetzak   | 7%  | 47.485  |
| Fagor, hirugarren mundua             | 12% | 81.403  |
| Fagor, taldea                        | 3%  | 20.351  |
| Mondragon Assembly, prestakuntza     | 4%  | 27.134  |
| Mondragon Assembly, kanpoko ekintzak | 4%  | 27.134  |

Mondragon Assemblyk zuzenean kudeatu dituen laguntzak hauek izan dira: 27.134 euro langileek beren kabuz egin dituzten prestakuntza ekintzetarako; eta beste 27.134 euro, inguruko kirol elkarte eta elkarte humanitarioetarako.

### 2.5.3 Gizartearentzako zeharkako ekarpenak

Aberastasuna eta enplegua, batez ere enplegu kooperatiboa, sortzea da ekonomian zeharka duen inpakturik garrantzitsuenak. Mondragon Assemblyk Mondragon Taldeari baliabideak emanda egiten du hori. Halere, Mondragon Assemblyk honen bidez ere eragiten du gizartean:

- Heziketaren bidez, bereziki Mondragon Unibertsitatekoaz.
- Ikerketa zentroen bidez.

## 3 Berrikuntza eta teknologia

Mondragon Assemblyk tenologiaren abangoardian egon nahi du bezeroei eta zerbitzurik hoberenak eskaintzeko, aldi berean planetaren iraunkortasunean lagunduta. Horregatik, teknologia hauek lantzen ari dira:

### 3.1 4.0 teknologiak, monitorizazioa, datuen analisia eta zerbitzu aurreratuak

4.0 eremuan, egindako esfortzuek prozesuaren eta produktibitatearen kontrolera bideratuta egoten jarraitu dute. Kategoria bietarako, informazio hori bildu, tratatu eta gordetzeko soluzioak eta tresnak lantzen jarraitzen dira.

Urrats garrantzisa eman da “Mondragon Assembly” plataformaren lehen pilotu baten garapenean eta ezarpenean, zeinarekin informazio berri horiek kudeatzen diren, Mondragon Assemblyk hornitu ahal izango dituen zerbitzu berrietarako oinarriak ezartzeko.

Ekoizpenaren trazabilitateak datu baseetan gordetzeko aplikazioak eta tresnak ere ezarri dira, sektore eta bezero batzuen eskakizunekin bat etorrira, bezeroaren MES delakoa osatzeko, Mondragon Assemblyren eskaintzan “ekoizpen ikuskapena”-ren funtzio integratuago baten bidez.

I+G alorrean, zentroekiko ikerketa lerroekin elkarlanezko proiektu anbiziotsuekin osatu ditugu lan horiek, non teknologia eta irtenbide elkartuak lantzen diren (Internet of Things, Edge, Cloud, Fog computing, Data Analytics,...), bezeroen benetako prozesuetan aplikatuta. Horrek ekarri du erreferentziako zentro teknologiko batekin proiektuen zorro bat edukitzea, bai eta beste zentro teknologiko batzuekin lankidetzan aritzeko proiektu estrategiko batzuk ere. 2019an asmoa da garapen horiekin jarraitzea, prozesuak gauzatzeko lanen segurtasunari lotutako zatietan eraginda, bai eta sendotasunari eta fidagarritasunari lotutakoetan ere.

### 3.2 Robotika

“Bin-picking” operazionalerako lehen erakusgailu bat lortu da 3D ikuspenarekin. Horrek utzi digu irudien tratamenduekin lehen kontaktuak edukitzen ikuspenaren eremuan, iku“3D puntu laino”-en bitartez, eta lankidetzazko robot batekin ere bai. 2019an, alderdi horiek lantzen jarraituko dugu, eta “bin-picking”-eko erakusgailu bat egingo dugu Makina berezien negozioaren premietara egokituta (piezak elikatzeeko teknologia fidagarri berriak gure makinetarako).

Kalkuluen eta manipulazioen zehaztasuna eta doitasuna dira kadentzia handiko makinetan errendimendu handiak benetan lortzeko behar ditugun parametroak. Lortu nahi ditugun helburuak dira. Eredu horretan, halaber, zentro teknologikoekin eta Mondragon Unibertsitatearekin egindako elkarlari esker kalkulatu ahal izan ditugu lautasuneko akats

geometrikoetarako zuzenketak. Mondragon Unibersitateak Eguzki negozioaren arazo baten gezurrezko kopia bat erabili du erakusteko nola zuzentzen duen zelula fotovoltaika bat manipulatzeko duen robotaren posizioa kamerak neurtutako paralelismo errorearen arabera (3D zuzenketak doitasuna hobetzeko).

### 3.3 Eguzki negozioa

Teknologia garbiak erabiltzeko eta soldadurak kentzeko, Eguzki negozioan itsasgarri eroaleak aplikatzeko oinarri teknologikoa garatu da erabat. Zentro teknologiko batekin eta hornitzaile batekin elkarlanean, mini-modulu itsasgarri bat jaulkitzeko eta fabrikatzeko prozesu oso bat esperimentatu da. Gero, garapen bide horrekin jarraitu ahal izan da eta produktu berri bat definitu (MTS-2500-ECA Itsasgarrientzat). Itsasgarri horiek emateko lehen gailuaren zehaztapenak definitu, diseinua egin eta gailua kaleratu da.

Aldi berean, 2 proiektu eta partzuergoren bitartez (bat europarra, eta bestea txiletarra) lehen moduluak diseinatu eta fabrikatu dira, zeintzuekin haien bizitza baliagarria nabarmen luzatu eta bizitza baliagarri horretan ekoizteak dakarren LCOE kostua (Levelled Cost Of Electricity) murriztu nahi baita.

Teknologia berrien garapen egokirako, 3 urteko lankidetza kontratu bat izenpetu da zelulen eta moduluen garapenean erreferentziakoak diren 3 zentroetako batekin, ezagutza teknologietan gehiago sakondu ahal izateko eta prozesu gehiago garatu ahal izateko.

2018an, Eguzki negozioaren “RoadMapping” prozesuari ere ekin diogu, Cambridgeko unibertsitateko Robert Phaalen lanetan oinarrituta.


### 3.4 Bateriak - Biltegiatzea

2018an, litio moduluak (bateriak) fabrikatzeko makina integratu dugu. Proiektu hori 2019an jarriko da martxan, eta horrela balidatuta geratuko dira, batetik, soldadura kalitatea eta, bestetik, makinaren benetako ahalmena. Aldi berean, lan komertzial handia egin da, azoketara joanda eta bezeroak bisitatuta. Eskuorri bat eta bideo bat egin dira Intersolar Euroa (Munich), SNEC, Intersolar India eta REI azoketarako.

## 4 Mondragon Assemblyren magnitude nagusiak


Hona hemen gure magnitude nagusiak: salmenten bilakaera, gure jarduera eremuak diren sektoreak, pertsona kopuruaren bilakaera.

### 4.1 Salmenten bilakaera




## 4.2 Salmentak sektoreka

Hona hemen Mondragon Assemblyk jardute eremu gisa dituen sektoreen banaketa adierazten duen taula:



## 4.3 Plantillaren bilakaera



## 5 Bezeroarekiko harremana

Mondragon Assembly mundu osoko bezeroentzako erreferentzia bihurtu duten hiru balio daude: izaera berritzailea, kudeaketaren bikaintasuna eta bezeroaganako hurbiltasuna.

### 5.1 Bezeroarentzako eskaintza

Mondragon Assemblyk teknologia ugari aplikatzen ditu bere produktu eta zerbitzuetan, eta aitzindaria da automatizazioko aplikazio berrien garapenean. Espezializatuta gaude muntaketa prozesuen automatizaziorako sistema eta ekipamenduen aukera zabal baten diseinuan, fabrikazioan eta instalazioan.

Erakundea bi negozio unitatetan banatuta dago; beraz, bezeroaren profila desberdina da negozio unitate bakoitzean.

#### **EGUZKI NEGOZIOA**

Mondragon Assembly eguzki panelak fabrikatzeko ekipamenduen fabrikatzaile ezaguna da munduan, eta giltza eskura erako ekoizpen lerroak eta sistema fotovoltaikoetarako makinak diseinatu eta saltzen ditu. Fabrikazio teknologia berritzaileak eskaintzen ditugu duela hamabost urte baino gehiago.

Mondragon Assemblyk balio kate osorako soluzio eta zerbitzuak eskaintzen dizkie bere bezeroei:

- Giltza eskura erako soluzioak tamaina desberdineko lerroetarako.
- Makina automatikoak edota erdiautomatikoak: tabber&stringer, interkonexioak, stringer&layup, cell tester&sorter, ijezkailuak eta modulu fotovoltaikoak aztertzeke makinak.
- Lehengaien eta kontsumigarrien diseinua, zehaztapena eta salmenta, moduluen garapena eta egiaztapena.
- Prestakuntza eta know-how-a
- Soluzio pertsonalizatuak: Mondragon Assemblyko ingeniari taldeak bere esperientzia jartzen du zure esku, duzun proiektua garatzen laguntzeko.

#### **AUTOMATIZAZIOA**

Mondragon Assemblyk hau eskaintzen du:

- Giltza eskura erako soluzioak eta neurrirako makinak soluzio automatikoetarako

- Fabrikazio lerroaren diseinua, muntaketa, programazioa eta instalazioa, bai eta proiektuaren azken harrera ere, zerbitzu integrala eskainita.
- Produktibitate handia, malgutasuna eta kalitate bikaina duten soluzioak
- Soluzio pertsonalizatuak: Mondragon Assemblyko ingeniari taldeak bere esperientzia jartzen du zure esku, duzun proiektua garatzen laguntzeko.

## 5.2 Produktu eta zerbitzu sozialki arduratsuak

Mondragon Assemblyk gardentasunaren, egiazkotasunaren, konfiantzaren eta fede onaren printzipioen arabera lantzen eta betetzen ditu kontratuak. Era berean, nagusitasun posizio posibleen ondorioz sortu daitezkeen abusuzko jarduketak saihesten ditu.

Eskaintzak oso zehaztuta daude, eta produktuaren eta bere prestazioen gaineko informazio zehatza ematen dute, bai eta epe, garantia eta gainerako alderdien gainekoa ere.

Salmenta ondoko zerbitzu bat dauka edozein arazori erantzuteko, dela garantiaren barruan, dela kanpoan. Zerbitzu hori mundu osoan ematen da.

Enpresan badira mekanismo batzuk bezeroen harremanetan beharrezko konfidentzialtasuna bermatzeko eta haien datuen pribatutasuna errespetatzeko.

Mondragon Assembly "compliance" penala ezartzeko prozesuan sartuta dago, UNE 19601 arauaren arabera, bezeroekiko harremanetan ustelkeriako, estortsioko eta eroskeriako jarduketak baztertzeko.

## 6 Pertsonen kudeaketa

Mondragon Assemblyren helburu nagusietako bat da langile kualifikatuak erakartzea eta erakundean geratu daitezela lortzea. Hori dela eta, hau bultzatzen dugu:

- Pertsonen garapena: etengabeko ikaskuntza, eta prestakuntzaren eta komunikazioaren hobekuntza. Kooperatibak bere bazkide langileen prestakuntza eta promozio profesionala errazten du.
- Oreka familia bizitza eta bizitza profesionalaren artean (ordutegi malgua, ordaindutako baimenak eta ordaindu gabeak, etab.)
- Berdintasuna ordainsarrietan eta garapen profesionalen
- Kontratazio jardunbide arduratsuak
- Parte hartzea
- Talde lana
- Berrikuntza
- Lidergoa
- Bikaintasuna

Mondragon Assemblyn, Laneko Kooperatiba den heinean, langileak enpresako bazkideak eta enpresaren jabeak dira aldi berean, eta eskubide eta betebeharrak osoak dituzte, bai beren eginkizun profesionalak betetzean, bai organo egokien bitartez egiten den gestioan eta enpresaren emaitzetan parte hartzeko eskubidean.

### 6.1 Plantillaren profila

|                             |      |
|-----------------------------|------|
| Bazkideen langileen egitura | 2018 |
| Zuzendariak                 | 6    |
| Buruak                      | 12   |
| Teknikariak                 | 123  |
| Zerbitzu Orokorrak          | 24   |
| Bazkide langileak guztira   | 119  |
| Sortutako enplegua (BLK)    | 26   |

Kontratupeko langile guztiek urte bateko aldi baterako kontratua dute. Guztira 26 pertsona daude egoera horretan eta 3 prestakuntza eta ikaskuntza kontratuarekin, Mondragon Unibertsitatearekin eta "Miguel Altuna" institutuarekin elkarlanean.

| HARREMANA                 | 2018 |
|---------------------------|------|
| ZUL                       | 102  |
| ZEL                       | 45   |
| BKL                       | 17   |
| BAZKIDEAK                 | 130  |
| BIRKOKATUTAKO BAZKIDEAK   | 4    |
| IJB                       | 33   |
| ATZERRITATUTAKO BAZKIDEAK | 9    |
| AURREZ ERRETIRATUAK       | 0    |
| ESZEDENTZIAN              | 4    |

| BAJAK                                                         | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---------------------------------------------------------------|------|------|------|------|------|
| Bajak (Kooperatiben arteko leku                               | 1    | 1    | 0    | 0    | 0    |
| Borondatezko eszedentzia                                      | 1    | 1    | 1    | 0    | 2    |
| Seme-alabak zaintzeko eszede                                  | 0    | 1    | 1    | 1    | 1    |
| Negoziatutako eszedentzia                                     | 0    | 0    | 1    | 0    | 1    |
| Erretiroa                                                     | 0    | 2    | 3    | 3    | 0    |
| Heriotza                                                      | 0    | 1    | 0    | 0    | 0    |
| Borondatezko baja                                             | 0    | 1    | 0    | 1    | 0    |
| Aurrez erretiratutakoak                                       | 1    | 5    | 2    | 0    | 1    |
| Emakumeen bajak<br>(Amatasuneko Aldi baterako<br>Ezgaitasuna) | 0    | 1    | 1    | 0    | 2    |
| Gizonen bajak (Aitatasuneko<br>Aldi baterako Ezgaitasuna)     | 2    | 4    | 1    | 2    | 4    |

## 6.2 Pertsonetako elkarrikereta mekanismoak

Mondragon Assemblyn bi urtean behin kulturaren analisia egiten da, eta horretarako erakundeko pertsona guztiei gogobetetze inkesta bat bidaltzen zaie.

- **Erakunde Kulturaren gaineko Inkesta (Kuantitatiboa):** 2017aren bukaeran Erakunde Kulturaren ganeko Inkestaren zati kuantitatiboa egin zen. Hurrengo inkesta kuantitatiboa 2019an egingo da. Inkesta, zeina Mondragon Korporazioak bere kooperatiba guztientzat garatu baitu, Kudeaketa Eredu Korporatiboarekin lerrokatuta dago, eta pertsonen gogobetetzea ez ezik haien konpromiso maila ere neurtzen du.
- **Erakunde Kulturaren gaineko Inkesta (Kualitatiboa):** 2018an Erakunde Kulturaren gaineko Inkesta Kualitatiboa egin zen. Mondragon Korporazioak kulturaren diagnostikorako eta analisirako garatu duen inkesta. Eredu honek palanka hauek ebaluatzen ditu:

1. Lidergoa, Kudeaketa Sistemak, Ekipoa eta Proiektu Partekatua.
2. Kultura Eraikitzailea, Pasiboa eta Agresiboa.
3. Pertsonen emaitzak: Gogobetetzea, Konpromisoa, Proaktibitatea, Banakako Estra-rola, Balantze Efektiboa.
4. Errendimenduaren emaitzak: Absentismoa, Balio Erantsia/Lanpostua

2018an, Mondragon Assembly palanka hauek lantzen jarraitu du:

- Talde lana
- Bezero kultura
- Lidergoa
- Jardueraren ebaluazioa (Matrizea, konpetentziak)
  - o Azterketa eta Plangintza
  - o Asertibitatea
  - o Konpetentzia teknikoak
- **Gogobetetzearen gaineko inkesta (Kualitatiboa):** Urtero, erakundeko pertsona guztien gogobetetze mailari buruzko inkesta kualitatiboa egiten da. Pertsonen departamentuak garatzen du inkesta. Pertsonen Departamentuak elkarriketa indibidualak eta taldekoak egiten ditu erakundeko pertsona batzuekin.
  - o Bi urtean behin erakundeko pertsona guztiei egiten zaie elkarriketa indibiduala.
  - o Urtero, berriz, taldeko elkarriketak egiten dira erakundeko pertsona batzuekin.
- **Kultura Kooperatibistaren garapena:** Mondragon Assembly Arretxabaleta 20-21 proiektua definitzen ari da: Zer nahi dugu MAA izatea etorkizunean? Kooperatibaren kulturaren definizioa. 2018an lantzen hasi zen proiektu horretan erakundearen zuzendaritza, eta 2019an kooperatibaren kultura garatuko eta definituko da.

---

Interes Taldea: Bazkideak eta Pertsonak

---

Elkarriketa mekanismoak, 2014-2018 aldian egindakoak

---

- Erakundea kulturari buruzko inkesta. 4,5eko puntuazioa gogobetetzean eta 5ekoa konpromisoan.
  - Barruko Bezeroaren Gogobetetzeari buruzko inkesta
  - Oinarrizko gobernu organoetan parte hartzea eta erabakitzeko ahalmena edukitzea: Ohiko Batzarrak eta Ezohikoak, eta Kontseilu Errektorea; Plan Estrategikoaren eta
-

## Gestio Planaren lanketa

- Kontseilu Sozialaren jarduera, negoziatzeko eta erabakitzeko ahalmen zabalekin.
- Lehendakariaren eta Zuzendari Nagusiaren agerpenak pertsona guztien aurrean (Hileko hitzaldi informatiboak), egoeraren diagnostikoa eta hartzen ari diren neurriak jakinarazteko.
- Erakundean dagoen Berdintasunaren egoerari buruzko inkesta eta famili kontziliazioari buruzkoa.
- Barruko Iradokizunen Sistema: Langileen ekarpenak.

Elkarriketarako mekanismoetatik abiatuta, bazkideek eta langileek kooperatibatik espero dutena identifikatu da, eta hainbat ekintza egin dira itxaropen horiei erantzuteko:

| Itxaropenak              | Egindako ekintzak                                                                               |
|--------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Parte hartzea            | Pertsonen parte hartzea areagotzea prozesuetan.                                                 |
| Aditzea lantzea          | Aditzea bultzatzea dauden tresnen bitartez: garapen elkarriketak, garapen pertsonalekoak, etab. |
| Talde lana               | Bulegoen artean informazioa trukatzeko tresnak, lankidetzarako tresnak, etab.                   |
| Pertsonen garapena       | Ikaskuntza bultzatzea, garapen pertsonala bultzatzea.                                           |
| Inplikazioak/Konpromisoa | Inplikazio eta zorroztasun handiagoa lanean.                                                    |

## 6.3 Langileen garapena eta prestakuntza

Prestakuntza Plan hau eraldaketa testuinguru batean landu da, non Mondragon Assemblyk eredu berri bati heltzen dion, negozio bien dibisioarekin eta Nazioarteko Talde gisa. Mondragon Assembly nazioarteko talde bat da; taldeak dagoeneko sei lantegi produktibo ditu Espainia, Mexiko, Frantzia, Alemania, Txina eta Brasilen, eta Indian filial bat.

Gainera, bulego komertzialen sare estrategiko bat daukagu munduko ekonomian liderrak diren herrialdeetan. Hauek dira erakundearen erronka nagusiak:

- Talde Internazionala: Filial-ekoizpen planta guztiak batzea, horietan proiektu globalak egiteko premia baitago.
- Presentzia globala sendotzea: Enpresa den heinean duen posizionamendua indartzea (markaren kudeaketaren garrantzia).

- Gobernantza eredua: Arlo korporatiboen eta filialen arteko harremana, bai eta filialen artekoa ere.
- Kudeaketa komertziala: Aukeren bilaketa aktiboa (proiektu globalak eta lokalak)
- Zaintza teknologikoa (ezagutzaren kudeaketa taldean eta 4.0 industria)
- Talentua erakartzea eta garatzea erakunde global batean. Garapen multikulturala eta belaunaldi erreleboaren planifikazioa.

Hurrengo tauletan agertzen da Mondragon Assemblyren prestakuntzari buruzko informaziorik garrantzitsuenak:

| AZALPENA                                             | KALKULUA                                                           | 2010    | 2011    | 2012   | 2013  | 2014 | 2015   | 2016   | 2017  | 2018   |
|------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------|---------|---------|--------|-------|------|--------|--------|-------|--------|
| % prestakuntza orduak/lan egindako orduak            | prestakuntza orduak/lan egindako orduak                            | 3,59%   | 1,65 %  | 0,67%  | 5,30% | 4,5% | 1,64%  | 2,49%  | 2,36% | 2,87%  |
| Prestakuntzaren batean parte hartu duten pertsonen % | Prestakuntzako pertsona kopurua/Plantillako pertsona kop. osoa*100 | 92,41 % | 80,49 % | 51,14% | 90,2% | 87%  | 80,37% | 86,45% | 88%   | 90,48% |
| Egindako prestakuntza ekintzen % planifikatuekiko    | Egindako ekintza kopurua/planifikatuak                             | 88%     | 75,61 % | 82%    | 83%   | 84%  | 50%    | 59%    | 70,6% | 73,23% |
| Euskarazko komunikazioaren %                         | Euskara Batzordea                                                  | 43%     | 41%     | 41%    | 61%   | 53%  | 55%    | 65%    | 58%   | 59%    |
| Pertsonen gogobetetze maila                          | Erakunde Kulturaren gaineko Inkesta                                | 3,24%   | --      | 4      | --    | 4,5  | --     | --     | --    | -      |

2018an Mondragon Assembly, S.Coop.en 6.242,37 prestakuntza ordu jaso dira, **101 prestakuntza ekintzatan** banatuta, eta saio horien **kostu osoa 230.728,78 €-koa** izan da.

**Guztirako kostu** hori kontzeptu hauetan xehatzen da:

- Kanpoko Prestatzaileen kostua: 164.343,11 €
- Zeharkako kostua: 61.853,41 €
- Barruko Prestatzaileen kostua: 4.532,11 €
- Ordu kopuru osoa: 6.242,37 ordu
- Prestakuntza jaso duten pertsona kopurua guztira: **133**

- Batez besteko prestakuntza ordu kopurua prestakuntza jaso duen pertsonako: 46,93 ordu pertsonako.
- Prestakuntza jaso duten pertsonen %: %90,48
- 2018ko batez besteko langile kopurua: 145
- 2018ko langile kopuru osoa: 147
- Ikastaro kopurua guztira: 101

#### **PLANIFIKATUTAKO PRESTAKUNTZA:**

Egindako ekintzak guztira:

- 2018rako aurreikusitako ekintzak: 15
- Planifikatutako eta egindako ekintzak guztira: 11
- 2018an planifikatutako ekintzen artetik bertan behera gelditu diren ekintzak guztira: Ekintza 1 (OYL tailerrean)
- 2018an planifikatuta egonda egin ez diren ekintzak guztira: 3 ekintza

#### **PLANIFIKATU GABEKO PRESTAKUNTZA:**

- Planifikatu gabe zeuden eta egin diren ekintzak guztira: 14

Gainera, urtero Prestakuntza Ekintzetan parte hartzen dutenen gogobetetzearen ebaluazioa egiten da, eta aldian-aldian Ekintza horien Eraginkortasuna ere ebaluatzen da.

Planifikatutako Prestakuntza Ekintzak edota 8 ordu baino gehiago irauten duten prestakuntza ekintzak amaitu eta gutxienez urtebete igaro eta gero egiten dira ebaluazio horiek.

Ebaluazio hori prestakuntza ekintzetara joan diren pertsonen zuzeneko arduradunarekin egin da, baloratzeko nola transferitu duten ikasitakoa lanpostura.

Hauek izan dira ebaluazioen emaitza:

- Planifikatutako prestakuntzaren batez besteko balorazioa: 8,22
- Planifikatu gabeko prestakuntzaren batez besteko balorazioa: 8,15

## 6.4 Harrera eta integrazioako programa

2014an pertsonak hartzeko eta aukeratzeko prozesua aztertu zen (foroetan parte hartzea, unibertsitate batzuekin elkarlanak, sare sozialak, Infojobs, etab.), erakundeak etorkizunean eduki ditzakeen premietarako egokiak diren profiletarako tresnak berrikusi dira eta postu guztien profilak definitu dira, baita nortasun probak eta postu batzuetarako azterketak teknikoak ere. Hitz batean, prozesua eguneratu da. Prozesuak jarraipena eduki du 2018an, eta prozesuaren jarraipen zehatza egin da.

Gainera, Harrera Plan mota bi definitu dira; bat langile berrientzat (BKLentzat), eta beste bat Iraupen Jakineko Bazkideentzat eta Epemugarik gabeko Bazkideentzat. Mondragon Assemblyn sartu diren pertsona guztiekin erabili dira harrera plan horiek. Plan horien helburua da langile berrien jarduera optimoa ziurtatzea eta haiek Mondragon Assemblyren balioekin eta ingurune kooperatiboarekin identifikatzen eta konprometitzen laguntzea, erakundean ematen dituzten lehen hiru urteetan.

Plan hori 2012az geroztik aplikatzen ari da eta 2016tik jarraipen zehatza egiten zaio. Jarraipen horretarako, Kontseilu Errektoreko lehendakariak Iraupen Jakineko Bazkide guztiekin eta Epemugarik gabeko bazkide guztiekin hitz egiten du.

## 6.5 Etengabeko prestakuntzako programak

Mondragon Assemblyn badakigu zenbaterainoko garrantzia duen prestakuntzak kooperatibaren eta gure produktuen kalitatearen hobekuntzarako prozesua sendotzeko, eta ahalegin handia egiten ari gara gure pertsonen garapen pertsonala eta prestakuntza bultzatzeko.

Erakundeak bi urterako Prestakuntza Plan bat egiten du, eta horretarako premien diagnostiko bat egiten du aurretik. Diagnostiko horretan zuzendari, taldeburu edota kudeatzaile guztiek hartzen dute parte, eta gainera bi Focus Group sortzen dira, negozio bakoitzetik bat, non arlo edo departamentu desberdinetako 14 pertsona inguruk parte hartzen duten.

2018an prestakuntza teknikoak eman dira arlo hauetan ari diren pertsonentzat: Bulego Teknikoa, Laneko Prebentzioa eta Segurtasuna, Merkataritza Internazionala, Jardueraren Kudeaketa, Finantzak eta fiskalitatea, Lidergoa eta Ekipoen kudeaketa, Proiektu Kudeaketa, Garapen Elkarriketa Eraginkorren Kudeaketa, etab.

## 6.6 Konpetentzien araberako kudeaketa

2013an pertsonen lotutako sistema guztiak batu ziren proiektu batean: PRAXIS- Konpetentzien araberako kudeaketa (Prestakuntza eta Garapena). Eskuliburu honi matrizeak gehitu behar zaizkio. Matrizeetan jasota daude lanpostu batean sartzen den pertsonak eduki behar dituen konpetentzia teknikoak, orokorrak eta espezifikoak. 2017an lanpostu batzuen konpetentzia tekniko eta espezifikoak birdefinitu ziren, kontuan hartuta erakundeak eta merkatuak denbora tarte honetan aldaketak eduki dituztela. Sistema honek langile bakoitzaren jardueraren

ebaluazio bat dauka (garapeneko elkarrizketak arduradunaren eta kolaboratzailearen artean-Feedback).

2018an identifikatu zen jardueraren kudeaketa ebaluatzeko sistema bat jartzeko beharrezkoak direla kudeaketa erremintak, arduradunei eta kolaboratzaileei eraginkortasuna handitzea ahalbidetzeko elkarren artean dituzten harremanetan. Ildo horretan, Mondragon Assemblyn, ikusi zen beharrezkoa dela zuzendariei eta taldeburuei erremintak eta kompetentziak eskaintzea kolaboratzaileekin dituzten bileretan eraginkortasuna handitzeko.

Honako hauek izan dira proiektu horren helburuak:

- Zuzendari eta kudeatzaile taldea sentsibilizatzea, ikusaraziz nolako garrantzitsua eta beharrezkoa den jarritako eredua aplikatzea Garapen Profesionaleko elkarrizketa egin ahal izateko.
- Kontziente izatea kolaboratzaileen garapena arduradunaren erantzukizuna dela
- Bakarkakoen xedeak eta helburuak departamentukoekin eta Erakundeko beste arloetakoekin lerrokatzea

## 6.7 Onura sozialak

Onura sozialen bitartez, Mondragon Assemblyren asmoa da neurri batzuk lortzea bazkideak Laneko Kooperatiban errazago inplikatu daitezen. Mondragon Assemblyk ekimen hauek garatu ditu bere kolaboratzaileek jasotzen dituzten onura sozialak hobetzera bideratuta:

---

### Onura sozialak

Kontziliazio neurriak: Barne Araudian bizitza pertsonala eta laneko bizitza uztartzeko neurriak jasotzen dira, baimen berezien bitartez bazkideek familian dituzten behin-behineko premiei errazago erantzun ahal izateko.

Abantailak finantza produktuetan pertsona guztientzat:

- Istripu aseguruak
- Mailegu hobaridunak ohiko etxebizitza erosteko
- Lehenetsunezko maileguak beste helburu batzuetarako; bankuko produktuak eta zerbitzuak lehenetsunezko baldintzetan (nomina aurrerapenak, zerbitzuengatik komisio salbuespenak, etab.).
- Enpresako jantokia, diruz lagundua.

Beste onura batzuk:

- Enpresako prestakuntza gisa programatutako ikastaroak osatzeko egiten diren ikasketa pribatuen finantzaketa.
- Izaera pertsonaleko aparteko premiei erantzuteko diru fondoak.

Horretaz aparte, Mondragon Assemblyn lan egiten duten pertsonen aparteko onura sozial hauek dituzte:

- Lanaldi Malgua: Pertsona guztiek (ez soilik bazkideek) ordutegi malgua egiteko aukera dute, astean 5 egunetan lan eginda, astelehenetik ostiralera. Malgutasuna lanera sartzeko eta lanetik irteteko izango da.
  - Derrigorrezko presentzialdia:  
Astelehenetik ostiralera, 9:30-16:15
  - Aukerako presentzialdia:
    - Sarrera: 07.00-09.30
    - Bazkaria: 12.30-14.30 Gutxienez ordu erdi.
    - Irteera: 16:15etik aurrera
- Lanaldi murrizketa seme-alabak zaintzeko.
- Borondatezko eszedentziak, seme-alabak zaintzeko, gehienez ere hiru urterako.
- 100 ordu negatibo ere metatzeko aukera, gai pertsonaletarako, ondorio ekonomikorik gabe, ondoren berreskuratzearen truke.
- Negoziatutako eszedentziak
- Barruko akordioak, kanpora ez ateratzeko, gurasotasuneko lehen 6 hilabeteetan.
- Itzulkin kooperatibo kapitalizatuak (Pentsio Plan Indibiduala)

Urtero, Mondragon Assemblyk bere emaitza erabilgarrietatik zati bat banatzen du bere bazkide langileen artean. Itzulkin kooperatiboa edo emaitzetako partaidetza deitzen zaio horri. Diru hori kapitalizatu egiten da eta bazkide bakoitzak kapital sozialean duen kuotari batzen zaio.

Kapital sozialeko partaidetza hau ezinbestekoa da bazkide langileak erakundean egiten duen jarduerari uzten dion arte, izan ere, ia pentsio plan indibidual bat da erakundeko lan bizitza osoan handitu ondoren. Partaidetza sozial horri ordainsari bat ezartzen zaio urtean, kapitalari interes tasa bat aplikatuta.

Bakoitzari urtean egokitzen zaion itzulkin kooperatiboa bazkidearen enpresa kostuaren araberakoa da edo bere ordainsari gordin osoaren araberakoa.

- Laguntza Sanitarioko sistema osagarri baten finantza kuoten estaldura.  
Mondragon Assemblyk, bere bazkide langileen onurarako, Mondragon Korporazioak bere bazkideentzat duen Laguntza Sanitarioko sistema integral baten urteko finantzaketarako behar diren kuoten zati baten ordainketa hartzen du bere gain, Gizarte Segurantzako Sistema Publikoaren osagarri gisa.

## 6.8 Laneko segurtasuna eta osasuna

Mondragon Assemblyk Laneko Segurtasuna eta Osasunaren kudeaketa dauka integratuta berak egiten dituen jarduera eta prozesu guztietan, eta kudeaketa hori ISO-45001: 2018 arauaren arabera egiaztatuta dago.

Barruko eta kanpoko gaiei begiratuta, hauek dira eremu horretan egin beharreko aldaketa nagusiak:

- Lege alderdiak: 2018an indarrean sartu da Metalaren hitzarmeneko langileak garen neurrian eragingo digun lege berri bat (Laneko Arriskuen Prebentzioaren alorreko prestakuntza ordu gehiago egitea eskatuko du, bai eta etengabeko prestakuntza bat ere)
- Alderdi teknikoak: Mondragon Assembly bere jarduera eremuak diren sektoreak dibertsifikatzen ari da eta teknologia berriak sortzen dira lerroetan sartzeko, eta horrek arrisku berriak dakartza.
- Alderdi kulturalak: Alde batetik, lan karga handiagatik beste kultura bat duten zonaldeetako pertsonak hartzen ari gara; bestetik, fabrikatzen ditugun instalazioak laneko segurtasun eta osasunari lotuta gure kultura eta sentsibilitateren oso bestelakoa duten herrialdeetara doaz eta horrek arrisku handiagoak eragin ditzakete gure laguntzaileentzat.
- Lan karga: lan karga handia daukagu eta horrek arrisku handiagoak dakartza, pertsonak tentsio handiagoarekin daude eta.
- Gurekin lanean esperientziarik ez duten pertsonak sartzea.

**Arrisku eta aukera ebaluazioan honako** hauek detektatu dira:

- Ditugun arrisku nabarmenenak, 4. mailakotzat hartzen ditugunak, makinaren manipulazioa eta horiek prest jartzea dira.
- Makinen manipulazioari dagokionez, asko hobetu da azken urteotan eta 2018an zehar ez da helburu espezifikorik izan: diseinukoek kontuan hartzen dute manipulazioa, jarraibideak lantzen dituzte eta muntaketakoei komunikatzen zaizkie eta makinaren instrukzio liburuan sartzeko dira; B pabiloian 2 garabi berri jarri dira.
- Harrapaketei dagokienez, istripuak eragiten dituen arrisku bat izaten jarraitzen dute eta horiek murrizteko lanean ari gara. 2017an prest jartzeko bilerak egiten hasi ginen eta aurten izan dugun helburua izan da proiektuen %95ean egitea. Proiektuen %50ean egin dira.
- 2018an muntaketako eta programazioko 9 kidek jaso dute prebentzio baliabideari buruzko prestakuntza. Beste 17ren bat kide falta dira prestakuntza hori jasotzeko.

**Arrisku eta aukeren azterketaren ondorioz, honako hauek izan dira egin beharreko ekintzak:**

- Bermatzea abiarazteko protokoloa era sistematikoan egiten dela. Horretarako asteroko ikuskapenak jarriko dira eta baliabide teknikoak jarriko dira makinaren eragiketa kritikoak ikustea ahalbidetzeko segurtasun hesiak kendu gabe.
- Arduradunei prestakuntza ematea dituzten betebeharren inguruan.
- Lanbide kritikoenei urteko prestakuntza ikastaro bat ematea erabaki da, euren lanpostuetako arriskuen ebaluazioaren inguruan.
- Programatzaileen eta muntaketako arduradunen %100i emango zaie prebentzio baliabideei buruzko prestakuntza.
- Eguzki energiaren negozioko bezeroekin jardura koordinazioa egiten dela ziurtatzea.
- Lantegitik igaro gabe bezeroen etxetara doazen instalazioen arrisku azterketa egitea.
- Tailerrean igorpen elektromagnetikoen neurketa egitea.
- Jardura koordinaziorako software aldaketa, sarreraren kontrola jarrita.
- Tailerrean PVD darabilten lanpostuen arrisku ebaluazioa egitea.
- B pabiloiko hirugarren sektorean garabia instalatzea.
- Arrisku bat ere identifikatu da jardueren koordinazioan, laneko segurtasun eta osasunaren alorrean eta prebentzioaren alorrean oraindik sentsibilizatuta ez dauden herrialdeetako bezeroekin.


Hauek dira 2018an landu diren **helburuak** eta lortu diren emaitzak:

| HELBURUA                                                                                                                                                                                                                                             | LORPEN MAILA                                                                                                                                                |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| A Arriskuen (objektuen arteko harrapaketak) ebaluazioko 4 mailako arriskuak murriztea, makinak martxan jarri aurretik bilerak eginez.                                                                                                                | Proiektuen %50etan ezarrita dago, lanean jarraitu behar da.                                                                                                 |
| Arriskuen ebaluazioko 4 mailako arriskuak murriztea: Eguzki negozioko proiektuetako prest jartzeko lanetako arriskuak analizatzea prozesu osorako: Muntaketa, desmuntaketa, garraioa, bezeroan instalatzea, kontuan izanda integratzen diren makinak | Helburua hau 2018an hasi zen lantzen eta 2019an lantzen jarraituko da.                                                                                      |
| Metalaren Hitzarmenak LAPari buruzko prestakuntzari dagokionez proposatzen duen maila lortzea Plantillan                                                                                                                                             | Tailerrean oraindik 17 pertsona daude prestakuntza jaso gabe. Bulegoko pertsonak ere oraindik ez dute prestakuntza jaso. 2019an jasotzea aurreikusita dago. |
| 10 puntu hobetzea Osartenen Garatuz ereduaren arabera prebentzioaren kultura ezartzearen gaineko autoebaluazioan.                                                                                                                                    | 7 puntu hobetzea lortu da. Ez da nahi zena, baina hobetzen jarraitzen da enpresan prebentzioaren kultura integratzeari dagokionez.                          |
| Arrisku psikosozialen beste ebaluazio bat egitea, Mondragon Assemblyko plantillan.                                                                                                                                                                   | Eginda dago, emaitzak jakinarazi.                                                                                                                           |
| Bezeroekin jarduerak koordinatzeko prozesua berrikustea                                                                                                                                                                                              | 2018an hasi da eguzki energiako negozioaren bezero batzuekin                                                                                                |

Istripuen intzidentzia indizea txikia da. Izan duen bilakaera azpiko grafikoan ikus daiteke:

## 2018ko LAN-ISTRIPUGARRITASUNA ACCIDENTABILIDAD 2018

### INZIDENTZIAREN INDIZEA - INDICE DE INCIDENCIA 2018



INZIDENTZIA INDIZEA = Lan istripu kopurua / MILA langilekiko  
SPM OSARTEN:: Media de las empresas de Osarten 2018 —◆—

2018an zehazki 5 istripu gertatu dira, 3 bajarekin eta 2 bajarik gabe. Ibilbidean (in itinere) istripu bat gertatu da eta beste bi gorabehera.

2018an zehar istripu eta gorabehera guztiak ikertu dira. Ikerketa horiek segurtasun eta osasun eta ingurumeneko batzordean aztertu dira eta hor lantzen dira ekintza zuzentzaileak eta horien jarraipena egiten.

**Laneko segurtasun eta osasunaren** eremuko **jarduera espezifiko**ei eta **ohiko**ei dagokienez, urtero jarduera hauek azpimarratu behar dira:

- **Legez bete beharrekoak eta bestelako eskakizunak betetzearen berrikuspena:** kontratu bat dugu espezializatua dagoen enpresa batekin eta horrek adierazten dizkigu eragiten dizkiguten aldaketak, eta urtean behin egiten da betetzearen eta ekintza zuzentzaileen ebaluazioa, hala badagokio.

- **Barne auditoriak:** adago barne auditoretza egiteko plana, zeina prozesuka gauzatzen den. Auditoretza horietan 11 adostasun ez aurkitu eta zuzendu dira.

- **Programatutako ikuskapenak:** 8 ikuskapen burutu dira hainbat alderdi berrikusteko, hala nola jarduera koordinazioa, produktu kimikoak, bulegoak, prest jartzea eta tailerraren ikuskapena.

- **Larrialdien eta ebakuazioen simulakroa:**

- **Laneko segurtasun eta osasun batzordearen hileroko bilerak:** 2018an 8 bilera egin dira eta 32 ekintza plan jaso dira, kontuan hartuta iradokizunak, salaketak, istripuen eta gorabeheren ekintza zuzentzaileak, barne eta kanpo auditoretzak, etab.

- 2018an honako ikastaro hauek (4) egin dira **prestakuntza arloan:**

- Segurtasuna bidaietan (iraila, 2 ordu): 23 parte hartzaile
- Makinetan CE markatzea (azaroan, 2 ordu): 13 parte hartzaile
- Bihotz biriketako berpizte teknikaren (RCP) birziklatzea eta desfibriladore erdiautomatikoa (DESA) erabiltzen ikasteko ikastaroa (azaroa, 2 ordu): 10 parte hartzaile
- LAP (PRL) Oinarrizkoa (abendua, 60 ordu -20 presentzialak eta 40 online): 9 parte hartzaile
- Osarten harrera plana, 2,5 ordu, parte hartzaile bat.

-**Komunikazioa:** hileroko hitzaldi informatiboez baliatuz, komunikazioak burutu dira laneko segurtasun eta osasun sistemaren inguruan, istripuak prebenitzera zuzenduta.

- **Osasunaren zaintza:** jarraian aipatuko diren ekintzak gauzatu dira

- Hainbat kutsagarri kimikorekin lan egiten duten langileei analitika bereziak egin zaizkie: hiru langileri egin zaizkie.
- 32 langile hasi dira lanean (12 ZUL eta 20 ZEL). Horiei dagokien mediku azterketa egin zaie.
- Aurten 34 mediku azterketa espezifiko egin dira, dugun planifikazioaren arabera (8 ZEL eta 26 ZUL).
- Aldian-aldean azterketa egitea zegokien 50 urtez gorakoei arrisku kardiobaskularraren azterketa egin zaie.
- 2018an ez da ez gaitasun eskaerarik tramitatu.
- Gripearene aurkako profilaxi kanpainaren barruan 5 pertsonak jaso dute txertoa. Nazioarteko bidaietarako ere egin da profilaxia.

- Urtero bezala, bihotz biriketako berpizte teknikaren eta desfibriladorearen erabileran erreziklatzeko ikastaroa egin da lehen laguntzetako taldeko langileekin.
- Azterketa epidemiologikoa ere egin da.

**Hauek dira 2017an nabarmenduko genituzkeen beste gai batzuk:**

- 2018an inbertsioa egin da A pabiloiko lantegi berrian. Lanetarako Segurtasun eta Osasuneko koordinatzailea izendatu zen eta laneko segurtasun eta osasuneko alderdi guztiak betetzen zirela zaindu zen.
- Estalkian eguzki panelak jarri dira eta horretarako ere zegozkion jarduera koordinazioa eta zaintza lanak egin ziren.
- Ez da jakinarazpen bat ere jaso lan arloko administrazioetik (salaketa, ohartarazpena...)
- Lan karga handia dela-eta, plantan pertsona, hornitzaile eta bezero asko badabil ere, ez da kexarik egon eta ez da gertakari nabarmengarririk gertatu kolektibo horien inguruan.
- 2018an zehar ISO 45001:2018 arauaren politika berrikusi da eta prozedurak arauaren eskakizunetara egokitu dira.

**2019rako helburuak:**

- Makinak prest jartzeko protokoloa betetzen dela ziurtatzea. Prest jartzeko lana egitea automatikoan, bigarren seihilekoko proiektu guztietan, segurtasun guztiak gaituta daudela
- Tailerrean PVD darabilten lanpostuen baldintzak hobetzea eta egokitzapen plan bat abian jartzea.
- Azpikontratutako langileen egokitasuna ziurtatzea azpikontratentzako fitxaketa digitaleko sistemaren bitartez.
- B pabiloian makinak manipulatzeko baldintzak hobetzea, garabi bat instalatuz.
- Egin da 2019rako osasun zaintzako laneko plana.

## 7 Jokabide etikoa

### 7.1 Betetze sistema

“Compliance” penala kudeatzeko sistema sendotzeko urtea izan da 2018a. Sistema 2018an egiaztatu zen UNE 19601 araua betez eta dagoeneko langileek bereganatuta dute.

Mondragon Assemblyk delituak egiteko arriskuaren analisia egin du, eta bertan egun egiten diren kontrol finantzarioak eta ez-finantzarioak identifikatu dira eta beste batzuk proposatu dira hondar arriskua murrizteko. Lanerako bidea da gure kontrolak hobetzea eta kontrol horien betetzea ikuskatzea, “Jokabide, erantzukizun sozial eta “compliance”-ko batzordea”-ren lan eraginkorraren bidez eta erakundeko pertsonak kontzientziazatuz eta prestatuz.

“Compliance” sistema garatu den aldi berean jardueraren adierazle batzuk definitu dira eta Aginte panelean sartu dira. Hauek dira adierazleak:

| DESKRIBAPENA                                                     | KALKULUA                                                                                                                                      | GOI MUGA | BEHE MUGA | 2016KO BALIOA | 2017KO BALIOA | 2018KO BALIOA |
|------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------|-----------|---------------|---------------|---------------|
| Ezarri diren hobekuntza proposamenen kopurua (CCRSCn jasotakoak) | CERSCeko pertsonak egin diren (edo CERSCtik kanpotik jaso diren) Hobekuntza proposamenetatik (“compliance”-aren alorrean) zenbat ezarri diren |          |           | 0             | 1             | 0             |
| Konpondutako salaketen/desadostasun %                            | (Konpondutako salaketak edota desadostasunak / CERSCn jasotako salaketak edo desadostasunak)x100                                              | 100      | 80        | 0             | 0             | 1             |
| Legeak ez betetzeagatik salaketak                                | Administrazioen jarritako salaketen edota isunen kopurua                                                                                      | 1        | 0         | 0             | 1             | 1             |

2018an zehar barneko eta kanpoko gaien analisia egin da eta berriro ere interes taldeen beharrak eta itxaropenak berrikusi dira. Gairik garrantzitsuena Datu pertsonalak babesteko legea indarrean sartzea izan da eta horren inguruan lan garrantzitsua egin da informazio sistemen arlotik.

Sistemaren jarduerari dagokionez, 2018an bost bilera egin dira (3 ohikoak eta 2 bereziak). Gainera, salaketa bat aztertu da CCRSC batzordean eta, ondoren, gobernu organoan. Hainbat ekintza jarri ziren abian eta dagoeneko zuzenduta dago salatutako arazoa. Aipatu ekintzak kontrol berri baten gisa ezarri dira.

Administrazioaren aldetik salaketa bat jaso dugu, hondakin edukiontzia espaloian izateagatik.

Kanpoko nahiz barneko salaketak jasotzeko webean jarritako bidetik ez da salaketarik jaso.

2018an hainbat gairi buruzko barne auditoretzak egin dira, maiatzean, ekainean, azaroan eta abenduan.

### 7.1.1 Helburuak betetzea

Helburuak betetzearen inguruan, 2018an bi izan dira landutakoak:

#### 1. HELBURUA:

Hondar arriskua murrizteko beharrezkoak diren kontrol finantzarioak definitzea eta ezartzea ondorengoei dagozkien delituetarako:

1. A “Negozioetako ustelkeria” eta
2. “Ogasun Publikoaren/Gizarte Segurantzaren aurkako delituak eta kontabilitateko obligazioak betetzearen aurkakoak 30 baino txikiagoa izatea” ,

Helburu hori bete ahal izateko laneko plan bat burutu da finantza departamentuarekin eta espero ziren emaitzekin gauzatu da.

#### 2. HELBURUA:

“Identifikatu dira planta guztietan arrisku horien eraginpean dauden pertsona guztiak eta prestakuntza eman zaie “compliance”-ren gainean. Pertsona horiek, gainera, “Jokabide Kodea” eta definitutako politika guztiak izenpetu dituzte”.

Helburu hori ez da guztiz bete. Mexikon eta Txinan arrisku horien eraginpean dauden pertsonen prestakuntza eman zaie eta horiek portaera kodearekiko eta Aretxabaletako politikekiko konpromisoa sinatu dute. Alemania, Brasil eta Indiako lantegietako ezarpena oraindik ez da egin.

### 7.1.2 Protokoloen edo prozeduren egokitzapena

Datuak Babesteko Araudi Orokorra (RGPD) eta informazioaren segurtasunarekin lotutako gaiak landu dira 2018an, ISO 27001 araua jarraituz.

Honako hauek dira garatutako zenbait kontu zehatz:

> Curriculum Vitae

- “Web”-ean eta “newsletter”-ean C.V.-ak jasotzeko formularioak egokitzea
- ARCO eskaerak prozedimentatzea, mugatzea, C.V.-ekiko eramangarritasuna.
- Webaren pribatutasun politika idaztea.

> Kontratuak

- Hirugarrenetikiko kontratuak 2022ko maiatzera arte DBAO (RGPD) araudiarekin bat datozela

> Bideozaintza

- Bideozaintzako kartela eguneratzea
- RGPD\_PR02 Prozedura – Bideozaintza (kamaren kokapena, irudiak gordetzea, sarbide eskubidea interesatuentzako).

> Honako prozedurak eta politikak ere garatu dira:

- Gorabeherak kudeatzeko prozedura: datuen segurtasun haustea antzemateko mekanismoak jasotzen ditu.
- Pantaila eta idazmahai garbien politika: ez die uzten sartzen baimenik gabeko pertsonen, lanpostua hutsik dagoenean.
- Ezabaketa eta suntsiketa politika: ez du uzten erabiltzen ez diren euskarrietatik informazio konfidentziala berreskuratzea.
- Pasahitzen politika: datu pertsonaletara sartzeko baimendutako pertsonen egingo dutela bermatzen du eta ez die uzten sartzen hirugarrenei.
- Segurtasun kopien prozedura: datu pertsonalen babesa arautzen du.

> Langile guztiek sinatu dute baliabide informatikoen erabilerarako dokumentua baliabideak behar ez den bezala erabiltzeko arriskua saihesteko.

> Langile guztiek sinatu dute dokumentua non enpresari datu pertsonalak erabiltzeko baimena ematen zaion, behartuta dagoen erabilera jakinetarako (Fagorrekiko harremanak, Korporazioa, nominak, etab.).

> “Compliance” kultura enpresaren prozesu eta jardura guztietan integratzeko xedez, honako dokumentu hauek aldatu dira eta pertsona guztiei jakinarazi zaie:

- Eskaintza-kobrantza prozesu gakoa: planteamendu orokorreko, diseinu mekanikoko eta diseinu elektrikoko check-listetan esaldi bat sartu da teknikariei patenteen eta erabilera ereduaren zaintza egin behar dela gogorarazteko.
- Bestelako dokumentuetan egindako aldaketak: eskaintza komertzialean eta erosketako baldintza orokorretan kontratu klausulak, arrisku penala murriztera zuzenduak, sartu dira .

### 7.1.3 Komunikazio ekintzak

- 2018an zehar komunikazio kanalak jarri ziren alde interesatuekin.
- Kode etikoa eta definitutako politikak enpresako pertsona guztiei komunikatu zitzaizkien eta web orrian argitaratu ziren.
- Barneko posta elektronikoa jarri zen eta beste bat kanpoko "compliance" penaleko sistemarekin lotutako salaketak bideratzeko.
- Lehendabiziko aldiz web orrian jardueren memoria argitaratu da.

Langileekiko komunikazioari dagokionean, urriko hitzaldi informatiboa erabili zen "compliance" penaleko sistemaren garapenari buruzko informazioa emateko, dituen helburuak eta abian jarritako hobekuntza ekintzak ere azalduz.

### 7.1.4 Aitortzak

2018an Mondragon Assemblyk "Compliance" Penal (UNE-19601) egiaztagiria jaso zuen, zuzenean Aenorreko presidentea emanda, ekintza horretan Aretxabaletako alkatea eta Mondragon Korporazioko presidentea ere bertan zirela. Aipatu egiaztagiria lortu duen lehen enpresa gipuzkoarra izan da eta baita Mondragon korporazioko lehena ere.

### 7.1.5 2019rako helburuak

Jakitun gara sistemari sendotasun handiagoa eman behar zaiola eta, horregatik, 2019rako bi helburu proposatu dira:

- Portaera kodearekiko atxikipenaren sinaketa bukatzea Alemania, Brasil eta Indiako lantegietan.
- Gutxienez hamar hornitzailearen atxikipena lortzea.

## 7.2 Giza eskubideekiko konpromisoa

MONDRAGON ASSEMBLYk bere kudeaketa sistemaren politika definituta dauka eta bertan mundu mailan onartutako eta "The Global Compact" itunean jasotako 10 printzipioak betetzeko konpromisoa hartzen du:

- 1.- "Enpresek onartutako giza eskubideen babesa bultzatu eta errespetatu behar dute nazioartean eta haien eragin esparruaren baitan".
- 2.- "Enpresek giza eskubideen abusuak konplize ez direla bermatu behar dute".
- 3.- <sup>[1]</sup><sub>SEP</sub> "Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidearen aitortpen eragingarria errespetatu behar dute enpresek".

- 4.- “Enpresek bortxazkoak edo derrigorrezkoak diren lan guztiak desagerrarazi behar dituzte”
- 5.- “Enpresek haurren lana modu eragingarrian deuseztatu behar dute”.
- 6.- “Enpresek enpleguarekin eta okupazioarekin lotura duen diskriminazioa desagerrarazi behar dute”.
- 7.- “Enpresek ingurumeneko arazoekin lotura duten prebentzio metodoak babestu behar dituzte”.
- 8.- “Enpresek ingurumeneko erantzukizun handiagoa bultzatzeko ekimenak bideratu behar dituzte”.
- 9.- “Enpresek ingurumenerako kaltegarriak ez diren teknologien garapena eta hedapena bultzatu behar dute”.
- 10.- <sup>[1]</sup><sub>SEP</sub> “Enpresek ustelkeria era guztien aurka egin behar dute lan, baita estortsioaren eta eroskeriaren aurka ere”.

## 8 Ingurumenarekiko harremana

2018an interes taldeen premien eta itxaropenen analisi zorrotzagoa egin da eta arriskuak eta aukerak aztertu dira. Administrazio publikoekin eta gizartearekin dugun harremanean lehentasunezkoa da guk geuk ingurunea zaintzea.

Ingurumen kudeaketako sistemaren ezarpenean, ISO 14001 arauaren arabera egiaztatzen dena, ingurumeneko alderdi nabarmenenak identifikatu eta ebaluatu ziren. Ondoren datoz kontsumoen eta sortutako hondakinen gaineko balio garrantzitsuenetako batzuk: 2018ko datuak ikus daitezke eta baita urteetan zehar izan den bilakaera ere:

| ADIERAZLEA                    | NEURRI<br>UNITATEA /<br>RATIOA | 2014    | 2015     | 2016     | 2017     | 2018     |
|-------------------------------|--------------------------------|---------|----------|----------|----------|----------|
| Batez besteko langile kopurua | Pertsona kopurua               | 90      | 95       | 110      | 122      | 145      |
| Paper kontsumoa               | kg                             | 563,75  | 1.167,45 | 1.104,00 | 1.778,10 | 1.287,50 |
| Energiaren kontsumoa          | KW*h urtean                    | 513.616 | 392.611  | 427.823  | 500.869  | 745.612  |
| Ibilgailuen km kopurua        | Kop.                           | 73.890  | 91.684   | 77.354   | 76.044   | 84.608   |
| Ibilgailuen km kopurua        | KM / Ekoizpen balioa (€)       | 0,01    | 0,01     | 0        | 0        | 0        |
| Gasolio kontsumoa             | Litroak/urtea                  | 3.228   | 4.039    | 3.924    | 4.506    | 3.392    |
| Sareko ur kontsumoa           | m3 / urtea                     | 855     | 884      | 685      | 755      | 1020     |
| Sareko ur kontsumoa           | m3 / urtea / Pertsona kop.     | 9,5     | 9,31     | 6,23     | 6,19     | 7,03     |
| CO2 igorpenak                 | Tonak                          | 22      | 29       | 27       | 29       | 21       |
| Taladrina hondakinak          | kg                             | 0       | 0        | 600      | 94       | 0        |
| Koipe hondakinak              | kg                             | 0       | 0        | 200      | 148      | 0        |
| Eguzki moduluen hondakinak    | kg                             | 0       | 1.500    | 400      | 1337     | 1732     |
| Paper eta kartoi hondakinak   | kg                             | 8.740   | 6.600    | 3420     | 4720     | 5620     |
| Plastikoen hondakinak         | kg                             | 4.100   | 3.480    | 3300     | 5800     | 4660     |
| Egur hondakinak               | kg                             | 2.940   | 3.900    | 4400     | 8360     | 28040    |

Ondokoak izan dira duten esangura handiagatik aztertu diren alderdiak:

- **Energiaren kontsumoa:** hazkundera proportzionala da jardueraren hazkundearekiko. Hobekuntza ekintza gisa, estalkian eguzki panelak instalatu dira eta 2019an zehar auditoretza energetikoa egingo da eta aztertu egingo da ea energia kudeatzeko sistema instalatzeko inbertsioa egin ote daitekeen.
- **Ur kontsumoa eta ur isurketa:** uste dugu proportzionaltasuna dagoela enpresaren kontsumoaren eta jardueraren artean.

- **Eguzki moduluen hondakinak:** hazi egin dira negozioaren jarduera hazten doan neurrian. Hondakin arriskutsuen baimendutako kudeatzaile baten bitartez erretiratzen dira eta moduluak erabilgarriak direnean zozketa egiten da langileen artean.
- **Egur kontsumoa:** hirukoiztu egin da bezero batek jarduerak burutzen baititu gure instalazioetan, hori ohikoena ez bada ere.

## 8.1 2018ko helburuak betetzea

Honako hauek izan ziren ingurumenarekin lotuta erabaki ziren bi helburuak:

- Estalkian eguzki moduluak instalatzea, helburua kontsumitutako energiaren %18a berriztagarrien bitartez sortutakoa izatea zela.
- Eraikinean energia kudeatzeko sistema instalatzea, energia kontsumoa murrizteko helburuarekin.

Estalkian 100 Kw-tako instalazioa egin da eta ekoizten hasita dago 2019ko urtarriletik aurrera.

Bigarren helburua ezin izan da egin, ez baitzegoen horretan erabiltzeko baliabiderik.

## 8.2 Ingurumeneko jarduera

2018an baliabideak eta ahaleginak eskaini dira estalkian eguzki panelen instalazioa egiteko.

Hondakinen kudeaketa hobetzeari ere eskaini izan zaio dedikazioa. Lantegi osoaren kudeaketa berrikusi da eta enpresa bat kontratatu, zeina egunero bi orduz etortzen den hondakinak jasotzera eta horien banaketa bermatzera.

2018an zehar bi inbertsio egin dira eta horiekin ingurumeneko eskakizun guztiak bete dira (solairuartekoan egindako lanak eta estalkian eguzki panelekin egindako instalazioa).

**Legez bete beharrekoen eta bestelako eskakizunen betetzearen ebaluazioa** egin da..0}

Urtean zehar hainbat alorretako **barne auditoretzak** egin dira. Horietan 4 desbideraketa aurkitu dira eta dagoeneko konponduta daude.

### 8.3 Komunikazioa

Iraileko saio informatiboan langile guztiei prestakuntza eman zitzaien ingurumen kudeaketako sistemaren helburuen bilakaeraren inguruan. Gainera, informazioa eman zitzaien estalkian iturri berriztagarriekin energia lortzeko jarritako eguzki panelen instalazioa nola zihoan jakin zezaten.

2018an zehar, lehen aldiz, 2017ko memoria argitaratu da web orrian eta hor daude ingurumen arloko jardueren emaitzak.

Obra bat egin da A pabiloia handitzeko. Behar ziren komunikazioak egon dira administrazioarekin, kutsatutako lurren azterketa egin da eta baita hondakinen kudeaketa egokia ere.

### 8.4 2019rako helburuak

Sistema berrikusi ostean, hobetzeko aukerak antzeman dira eta horiek 2019rako bi helburuetan gauzatu dira:

- Ibilgailu flotaren igorpenak %30ean murriztea.
- Energiaren kontsumoa %5 murriztea (energia kudeatzeko sistema bat instalatuz)
- Auditoretza energetikoa egitea.
- Bulegoetako energia kontsumoa murriztea, egungo argiak aldatu eta Led lanparak instalatuz.

## 9 Erosketa arduratsuak

Mondragon Assemblyk ulertzen du faktore etikoak, sozialak eta ingurumenekoak txertatu behar dituela bere erantzukizunetako bat baita, eta horregatik bere jokabide kodea eta bere politika guztiak bidali dizkie bere hornidura kateko guztiei.

Mondragon Assemblyk bere hornitzaileei zabaldu nahi dizkie enpresan aplikatzen dituen printzipioak, eta beren jardueretan laneko segurtasuna eta osasuna txertatzen duten enpresekin eta ingurumenarekin errespetutsuak direnekin egin nahi du lan, bai eta etikoki eta sozialki arduratsu jokatzeko dutenekin ere.

2018an zehar erosketetako baldintza orokorrak aldatu dira, “compliance penal” arloko praktika onak hornidura katera hedatzeko xedez. Erosketa baldintza horiek eskuragarri daude web orrian, non hurrengo pasarteak jasotzen diren:

### **ARAU BETETZEA ETA USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA**

*HORNITZAILEAK giza eskubideen babesa , gutxieneko lan baldintzak eta ingurumenarekiko erantzukizuna errespetatuko ditu, eta saihestu egingo du ustelkeria. Ondorioz, HORNITZAILEAK delituekiko zero tolerantzia duela adierazten du eta horiek egitea berariaz debekatzen dio bere buruari, izan era zuzenean edo izan hirugarrenen bitartez, Kontratu honen egikaritzeari dagokionean.*

*Horrenbestez, HORNITZAILEA konprometitu egiten da ustelkeria ekintzarik ez egitera, eroskeria, influentzia trafikoa eta kapital zuriketa barne, eta, halaber, horrelako portaerak bere erakundearen barnean gerta ez daitezen prebenitzera, Kontratu honen egikaritzeari dagokionean. Adierazpen hauek HORNITZAILEAri berari eragiten diote eta bere langile guztiei, eta baita geroko azpikontratista guztiei eta HORNITZAILEAren harremana duten pertsonen ere, Kontratu honen egikaritzeari dagokionean.*

*Horretarako, HORNITZAILEA konprometitu egiten da EROSLEAREN Portaera Kodea betetzera. HORNITZAILEAK adierazten du irakurri duela eta sarbidea duela Portaera Koderako, &fAwww.mondragon-assembly.com; helbidean baitago. Era berean, HORNITZAILEAK EROSLEAri emango dio horrek eskatutako edozein informazio, edozein unetan, HORNITZAILEAK Portaera Kodea betetzen duela egiaztatzeko.*

*Klausula honetan edo EROSLEAREN Portaera Kodean aurreikusitakoa ez bada betetzen, azken horrek alde aurretik hautsi ahal izango du kontratua, EROSLEAREN aldekoak izan daitezkeen beste eskubide batzuen kaltetan gabe, eragindako kalte eta galerengatik ordaina barne.*

Software berri bat ere ezarri da, laneko arriskuak prebenitzeko legearen eta segurtasun eta osasuneko baldintza betetzea kudeatzeko, Mondragon Assemblyren instalazioetan jardueraren bat egin behar duten azpikontratistatutako enpresa guztien aldetik. 2019an beste herrialde batzuetako enpresentzako ezarriko da.

2019an azterlan bat egingo da laneko segurtasun eta osasun baldintzak betetzen direla ebidentzian jartzeko, ingurumenarekiko eta betetze penalarekiko hornitzaileengan duen eraginean.